

AZENTUA ETA ENTONAZIOA; HARREMANAK

Euskal ebakeraz II. jardunaldiak

Durango, 1986-V-29

Karmele Rotaetxe

Orain dela gutxi, gure lengusin barritsu batek Bilboko Jantoki txinatarrez ziharduela, Elkano kaleko jaubearen “elebitasun berezia” gomuta izan zigun. Egia esan, delako gizonak, bere jantokitik alde egiten dugunean, “agul eta gelo alte” esan ohi digu, integrazio frogak eskaintzeko asmoz edo bere *espainolezko* berbaldia amaitu duela erakusteko. Eta berbaldi honi buruz, lengusinak gaineratu: “Pero habla castellano en chino”.

Hau anekdota hutsa da eta anekdotatzat hartu behar. Baina, ohartzekoa da gaur eta hemen interesatzen zaigun gaia orduan eta minutu pare baten zabaldua geratu zela. Goazen ba pausaka aztertzen gure txinotarrak egiten duena:

— Alde batetik, euskarazko soinuak bere hizkuntzaren soinuei hurbiltzen dizkie eta:

/aguRetageroaRte/ esan ordez

/aguletage/oa/te/ dio.

Hau da, euskarazko sekuentzia fonikoaren zati edo soinu batzuren ordez, beste batzu ahozkatzen ditu. Jakina denez, “Hitzaren Fonologia” deritzanak soinuen arteko oposizioak erakutsi behar ditu, soinu horren *fonema*-balioa egiaztatzeko. Delako oposizioak katearen puntu berberan jazo behar direla gomutaratu behar dugu, oraingo, azentuaren funtzioa bertan ez datzala ulertzeko.

Beste aldetik, goiko anekdota horretan “Habla castellano en chino” esaldi horrek zer esan gura du? Aipatu dugun trukeagatik ez genuke esango, zalantza barik, “habla euskara en chino”. Esan gura duena zera da: gizon txinatar horrek, gazteleraz berba egiten duenean, txineraz izango balitz legez egiten du. Eta, espainolezko berbak ebakitzen dituenean, goian aipatutako trukez gainera nabarmena agertzen dena hau da: espainolezko berbak erabili arren, hizkuntza horren gramatika arauak ondo

gauzatu arren, gizon horren jardunako estalkia, azala, "azaldaketa" (AZKUE-ri jarraituz) ez da sekula izaten gaztelanu batek erabiliko lukeena. Hemen deitzen dugun "estalkia" edo "azaldaketa" azentuagaz eta entonazioagaz lotuta dago, hain zuzen; fenomeno bi hauek kate fonikoaren zatiei edo segmentoei ez dagozkie eta, horregatik, hizkuntzalari batzuek "suprasegmentalak" dei egin diete. Guk, hemen segmentalak ez direla esango dugu, beste izenik eman gabe. Fenomeno hauei buruz, ezaguera praktikoa denok dugu (lengusinak legez) eta, behin baino sarriago, delako hiztun batek "kanpoko azentua" duela esaten dugu, adibidez. Kontua da euskaldun berrien artean sarriegi gertatzen dela hori eta Euskaltzaindiak berriro batu gaitu hemen (orain lau urte, Azkoitian egon ginian) euskararen bereizitasun ez-segmental hauei argi apur bat ekartzeko.

Euskaldun berri askok erakusten dute, "atzeritar azentu" hori arrazoi bigatik azal daiteke:

a) Dugun eta, mendeetan zehar, eduki dugun hizkuntz-kontaktoagatik: gure gizartean gaztelera (edo frantsesa) menperatzen da eta interferentziarik boteretsuena segmentalak ez diren fenomenuetan agertzen da. Horregatik, hizkuntz askotako Plangintza ("Language Planning" deritzana) eratzen denean, arduradunek kontutan hartzen dituzte ("Corpus Planning"-aren barruan) "Rules of Punctuation" and "Spelling"-en zehatzak (1). Delako erregelei esker, hain zuzen, ikasleak ikasi ahal ditu azentuak eta entonazioak dituen ondorioak bai grafian, bai eta ebakeran. Gure artean, horrelakorik ez da egin.

b) Oraintsu arte, euskararen irakaskuntza idatzitako hizkuntzaz larregi kezkatu da, euskara batua idazteko hizkuntzarako sortu zelako. Baina, inoiz ere ez da larregi azpimarratuko hizkuntza naturalak ez direla gramatika erregelen multzoak bakarrik, ez eta *segmento fonikoei* dagokien aginte multzoa ere, soilik. Gizon-emakumeek ditugun hizkuntzak (hau da, hizkuntza naturalak eta ez artifizialak) hizkuntza biziak izanez gero, *ahoz* erabiltzen ditugu jatorriz, lehenbizia eta batez ere. Idatzitako hizkuntzagaz parekatuta, ahozko hizkuntzak duen lehentasuna adituteko, gogoan eduki behar ez dagoela haurrik berba egin baino lehenago boligrafoa erabiltzen duenik. Azentua eta entonazioa ahozko hizkuntzari dagozkio eta fonologiaren sailean sartzen dira, euren ondorioak bai gramatikan eta bai pragmatikan ageri arren. Esan daiteke ez dagoela hizkuntzarik, era batez edo beste batez, azenturik eta entonaziorik ez duenik (doinuen hizkuntzez (2) ez naiz ari), munduko hizkuntzak ezagutzen

(1) Ikus, adib. Moshe NAHIR: "Status Planning and Corpus Planning in Modern Hebrew", in J. MAURIS (ed.) *L'Aménagement linguistique comparé*, Gouvernement du Québec, 1987.

(2) Hau da, doinuak, soilik, eragindako aldaketak dituen hizkuntzak (txineraren euskalkiak, serbo-kroata, etab...).

ditugun neurritz, jakina. Zoritxarrez, ahozko euskara gutxi (edo txarto) ezagutzen dugu, deskripzioak falta zaizkigulako. Euskarari buruz, dogma batzuek irauten dute, hizkuntzaren benetako egitura ezkutatu. Baina, azentua eta entonazioa finkatzeko, dogmek ez dute baliorik eta deskripzio gehiago beharko genituzke, derrigor. Bestalde, bistan dago edozein deskripzioak —bere helburua lortzeko— finkatu behar duela, lehenbiziz, zer diren fenomeno bata eta bestea. Hori dela eta, II Jardunaldi hauetako eztabaidak ireki baino lehenago, argi eta garbi eduki behar dugu, gutxienez, zelan ageri diren azentua eta entonazioa beste hizkuntza askotan (eta ez, soilik, espainolean edo/eta latinean), eta ze funtzio bete duen bata eta besteak (3). Jakite honek baimendu behar diguna hau da: a) azentua eta entonazioa beste fonologiaren fenomenuetatik aislatzea; b) azentu eta entonazioa, parean jarrita, fenomenu biren arteko aldeak argitzea. Horretarako, onartu behar da euskal azentua zelakoa den jakiteko, aldez aurretik jakin behar dela zer den azentua Hizkuntzalaritza Orokorrean. Hori dela eta, hauxe da erabiliko dudana eskema:

1.—AZENTUA; 1.1 Hizkuntzalaritza Orokorra ematen duen azalpena - 1.2. Euskal azentuaren gauzatzea - 1.3. Grafiari eramateko proposamena.

2.—ENTONAZIOA; 2.1. Hizkuntzalaritza Orokorra ematen dituen azalpenak eta gure aukeraren arrazoiak - 2.2. Euskal entonazioa.

3.—AZENTUAREN eta ENTONAZIOAREN ARTEKO HARTUE-MONAK; 3.1. Fenomeno biak nahastuteko arrazoiak - 3.2. Bereiztuteko beharrak.

Bestalde, aurkeztuko ditudan ideiarik nagusienak ez direla berriak aitortu behar dut (4) eta Euskaltzaindiaren barruan ere azaldu ditut (5). Baina, ordutik hona, nire hipotesia aldatzeko arrazoirik ez dut ikusi.

1. AZENTUA

Linguistika orokorrean, azentuaren estudioa Fonologian sartu ohi da eta, Fonologiaren barruan, *Azentologian*.

Erabiliko dudana terminologiaz, zer edo zer esan behar: *soinua* “sonido”, “son” edo “sound” adierazteko gordeko dut, eta *fonema* (behar

(3) Karmele ROTAETXE: *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*, L. Zugaza, Durango, 1978. 2.0, 2.1 eta 2.2 Kapit.: 140-206 orr.

(4) —: “L’accent basque (Observations et hypothèses)” in *La Linguistique - Revue Internationale - International Review*, 1978-2, Paris, New York: 55-77.
“L’accent basque” - *Abstract*, in *Language and Language Behavior Abstracts*, 13 / 4, 1980. San Diego, Ca.: 964 - ref. 05118.

(5) —: “Euskal Prosodiaz”, in *Euskera*, XXVI, 2.ald., 1981-1: 381-396.

izatekotan) “fonema”, “phonème”... adierazteko. Jakina denez, hiru parametro bereizten dira soinu bakoitzean: fisika-arloan, luzeera, bibrazio-anplitutea eta bibrazio-frekuentzia. *Perzepzioari* dagokionez, honela etortzen zaizkigu: lehena, *iraupena*, bezala: bigarrena, intentsitatea edo *indarra* (eta hitz hau gordeko dut): hirugarrena, goiera bezala eta, honetan, lehenbiziko fundamentalaren frekuentziaz gainera, tinbrea eta *doinua* sartzan dira; horregatik eta ohituragatik, doinua gordeko dut hirugarren parametro hau izendatzeko. Beraz:

– Fisika ... luzeera; bibrazio-anplitutea; bibraz. frekuentzia.

– Perzepzioa.. *iraupena; indarra; doinua.*

Inziso gisa, azpimarratu gura dut zientzia guztietan preminazko dela terminologia. Eta funtsezko nozioak izendatzen dituen goiko hauetan doinua soinuaren parametro (eta konpontzaile) bat izanez gero, ezin dugu hitz bera erabili entonazioa deitzeko, fenomenu ezberdin biren aurrean gaudelako. Esaterako, soinu bakoitzean doinua dugu baina ez dugu entonaziorik, hau beste zerbaiti dagokio eta (ikus. beherago).

– *Zelan gauzatzen da azentua?* Ez dago mila bide: edo azentuak soinu baten parametroei zer edo zer kentzen die (iraupenari edo indarrari edo doinuari, edo denei) edo, alderantziz, azentuak soinuari zer edo zer gehitzen dio eta, berriro, izan behar da edo *iraupena*, edo *indarra*, edo *doinua*. Munduko hizkuntzak aztertuak izan diren neurriz, bigarren prozedura hau erabiliena dugu; hori dela eta, gehigarri hau hartzen duen soinuak inguruko soinuen artean *gailetzen* da eta *gailendu* hitza gordeko dut “destacar” edo “mettre en relief” adierazteko, *gailentze* hitza esp. “prominencia”, ingl. “prominence” edo fr. “proéminence”, izanik.

Geroago ikusiko denez, entonazioak doinua erabiltzen du melodiaren aldaketak lortzeko. Azentuak erabiltzen duen parametroa, ordea, hizkuntza batetik bestera desberdina izan daiteke: gazteleran, adibidez, *indarra* da; frantsesean, berriz, *doinua*. Nahiz eta hizkuntza bi hoietan hitz bera erabili, “accento” edo “accent”, ingelesak, esaterako, baditu hitz bi azentu-mota desberdin hoiiek izendatzeko: “stress”, lehen kasuan, “pitch”, bigarrenean. Baina, parametro hauek ez dute banaka funtzionatzen eta, aspalditik Maurice GRAMMONT-ek erakutsi zuen indarraren gailentzeak erakartzen duela beti iraupenarena eta sarritan doinuarena, alderantzizko erakarrera jazo barik:

“L’intensité entraîne toujours avec elle la durée et souvent la hauteur; la réciproque n’est pas vraie” (6).

(6) M. GRAMMONT: *Les vers français, ses moyens d’expression, son harmonie*, Paris, 1913 - S. KARCEVSKIJ-ek aipatua “Sur la phonologie de la phrase”, in *TCLP*, 4 (1931): 118-228, eta 201 bereiziki.

Behar bada, horregatik ere, indar-azentua benetako azentutzat hartuta izan da, askotan.

Nire hipotesiak parametroen arteko erlazio hau oinarritzat hartzen du. Hori dela eta erakutsiko balitz oinarri teoriko hau zuzena ez dela, beronengandik datozen ondorioak egokitu beharko lirateke.

Hizkuntza baten azentuz eta entonazioz auduratzen den azterketak argitu behar du, alde batetik, azentu-parametrorik garrantzitsuena zein den eta, beste aldetik azentu-gauzatzeak eta melodiaren gora-beherak ze hartuemonetan gelditzen diren. Hau lortzeko, abiapuntutzat onartu behar da —teoriaren mailan, behinik behin— fenomeno bi direla, bakoitzak bere markoa duelarik. Gure hizkuntza kasuan, baina, diferentzia hau egitea ez da errez izan eta, behar bada, ez dela oraindino erraz onartzen. Betidanik, fenomeno biak nahastuta ageri dira. Adibidez, ALTUBE-k *El acento vasco* liburuan “entonación” edo “accento” erabiltzen ditu, hitz biren arteko alderik —edo, behintzat alde teorikorik— egin barik (7) eta AZKUE-k parentesien artean sartzen du (“la entonación”) “el acento” aipatzen duenean (8).

Dirudienez, gaurko egoera ez da asko aldatu eta ez da aldatuko behar ditugun oinarri teorikoak onartu arte eta hauei dagozkien definizioak adierazi arte. Zeren, oinarri batzuk finkatu ta gero, ikerlangileek ondorio berdinetara hel daitezke edo ez; dena dela, eztabaida dezakete. Baina, oinarri teorikorik gabe, ezin hel daitezke ondorio berbera, ez eta eztabaidarik eduki.

1.1. Oinarri teorikoak

Azentuari dagokionez, goiko lerrook oinarririk garrantzitsuenetarikoa bat finkatu dute: azentua da soinuen parametroei esker marko baten barruan jazoten den gailentzea. Hortaz, Paul GARDE-ren definizioa nirean egiten dut lan honetan, beste aurreko lanetan egin nuenez:

“mise en valeur d’une syllabe —unité accentuable— dans le cadre du mot —unité accentuelle—” (9).

Definizio honetan, nabarmena dena hau da: nahiz eta azentua silaba batean (geroago zehaztuko dugu hau) jausi, bere efektua hitz bati (hau ere zehatzago ikusi behar da) dagokio. Ikusten denez, hain zuzen ere, goiko definizioan gauzak ez dira “a priori” emanak. Adibidez, jakin behar da zein den hizkuntza bakoitzaren barruan unitate azentugarria (“unité

(7) ALTUBE taí Seber: *El acento vasco (en la prosa y en el verso)*, Bermeo, 1932, 219 orr.

(8) R.M. de AZKUE: “Del acento tónico en algunos de sus dialectos”, in *Euskera* VI, 1930: 282-297, 282 bereiz.

(9) P. GARDE: *L’accent*, París, P.U.F., 1968, 53 orr.

accentuable”) eta, hizkuntza askotan, silaba baldin bada ere —definizioan aipatzen denez— beste hizkuntza batzuetan segmento txikiagoa dugu, *mora*, hain zuzen. Euskarari aplikatzeko orduan, puntu hau erabaki behar da. Bestalde, azentudun unitatea ere (“*unité accentuelle*”) ez dago a priori emanda. Adibidez, gure hizkuntzarik gehienetan grafiari dagokion unitatea (hitza) baino txikiagoa ez bada ere, bistan dago handiagoa izan daitekeela; horrela, hizkuntza batzuetan azentua hitzari dagokio (gaztelera, adib. “*célebre*” / “*celebre*” / “*celebré*”...) eta beste batzuetan, frantsesean legez, hitz-taldeari: “*Monsieur*” baina “*Monsieurjean*” eta “*Monsieurjeandubois*”. Bigarren kasu hau izatekotan, hitz-taldearen berbak hartuemon estuetan egon behar direla suposa daiteke.

Bistan dago, euskal azentuaz mintzatzeko, jakin beharko dugun zein den edo izan daiteken *azentuaren markoa*. Zeren, aipatu dugun gailentze hori erlatibo nozioa dugu, unitate azentugarria *beste batzuen gainean* gailentzen delako, sortzen den *kontraste* bati esker. Hain zuzen, azentuaren garrantzirik handiena bere *funtzio kontrastiboan* datza eta hau, marko batean gertatzen eta gertatu behar delako, *funtzio demarkatiboa* ere dugu. Hori dela eta, azentudun unitate batean —marko batean— sortzen diren kontrasteek eragiten dute *azentu-egituratzea* edo *azentu-itxuraketa* izendatu genuena (10) “*configuration accentuelle*” bihurtzeko. Beste moduz esanda, funtzio kontrastibo horregatik, marko bateko unitate azentugarri guztiek —gailendurik daudenek eta ez daudenek— moldatzen dute azentu-itxuraketa. Euskal azentuaz arduratzean, konzeptu hau ere zaindu beharko da, nahiz eta gure estudioetan berria izan.

Beste oinarri batzuk argitu ditugu hemen: gailentzea unitate azentugarrian jazoten da; azentua oihartzen da kontraste baten bidez eta kontraste honek bere markoa du. Gainera, badakigu hizkuntza batzuetan azentua *libre* izaten dela (gaztelera...) eta beste batzuetan, *toki finko* batean. Oinarri guztiok batuta gero, azentu deskripzio batek finkatu beharko ditu:

a) Unitate azentugarria: silaba? mora?

b) Azentuak bereiziki erabiltzen duen parametroa, indarrak doinua eta iraupena dakarrela kontutan edukiz.

d) Azentudun unitatea: hitza? hitz-taldea?

e) Hitzaren edo hitz-taldearen barruan, ze tokitan kokatzen den unitate azentugarria: toki finko batean —beti bat delako (frantsesean bezala) edo arau batzuen bidez finkatu ahal dugulako (latinean bezala)—edo, alderantziz, toki mugikor batean (gaztelera bezala)?

(10) K. ROTAETXE: “Euskal Prosodiaz”, op. cit.: 384.

1.2. Euskal Azentua

Roman JAKOBSON-ek dioenez, azalpen batek zera hartu behar du helburutzat: barianteen zehar, inbarianteak argitzea. Euskal azentuari dagokionez, delako “inbarianteen” bila joan behar da zehatz indibidualetan ez itoteko.

Orain hamar urte, euskarari buruzko lehenbiziko espektrogramak aurkeztu eta aztertu nituen (11). Azentuari buruz orduan atara nuen hipotesia, gaur ere —beste espektro berriak aztertuta gero— mantentzen dut (12).

Hortaz, goiko itaunei erantzuten saiatuko naiz:

a) Espektrogramei esker, euskararen unitate azentugarria *silaba* dela eta ez mora ikus daiteke. Euskararen azentua doinuazkoa zela hain sarritan aipatua izan delako, egiaztapen hau egin behar zen.

b) Silaba bat gailentzeko erabiltzen den parametroa *indarra* da espektrogrameen azterketek erakusten dutenez. Hain zuzen, lan honeguz aurkeztutak ditudan 2.2.0.0. eta 2.2.0.1. espektrogrametan, goiko kurba indarrezkoa da eta bistan dago *a* bokalak —ostaabe berbako— inguruko bokalekatz gonparatuz, indartsuagoa dela, dagokion kurba-zatia altuago doalako. Egia da Ondarruko berba honetan kontrakzio bat jazoten dela, euskal ebakeran hain sarritan gertatzen denez. Baina kontrakzio honek, hain zuzen ere, silaba horren azentua indarrezkoa izan behar dela frogatzen du, Mitxelena-k aspalditik eta hizkuntza-historiaren arauera erakutsi zuenez (13). Doinuaz, geroago arduratuko naiz. Eta iraupenari dagokionez, fonemen azterketak argitzen duena ohartzen da: iraupena ez da ezaugarri pertinentea, beste ezaugarriek, automatikoki, ekarritako bat baino (14). Jakina, Paul GARDE-k dioenez (15), belarrira parametro guztiak “en vrac” etortzen zaizkigu eta, ez da erraz jakiten, makinari gabe, zein den parametrorik nagusia.

d) *ri* erantzuteko —hau da, azentuaren markoari buruzko itaunari— jarraitu diodan taktikaz hitz bi esan behar aurretik. Ohitura denez, intere-

(11) K. ROTAETXE: Op. cit. in (3): 58-59-69-61-153-154.

(12) Eskaini didan laguntzagatik, eskerrak eman behar dizkiot Hizkuntzalaritza Orokorreko Sailean lankidea eta adiskidea dudana Maitena Etxebarria Irakasleari.

(13) L. MICHELENA: “A propos de l’accent basque”, in *BSLP*, 53 (1957-58): 204-223.

(14) Honetaz, cf. adibidez: Karmele ROTAETXE. “Interpretación silábica en la lengua vasca”, in *Estudios ofrecidos a Emilio Alarcos Llorach*, V. Univ. de Oviedo, 1980. Lan horretan, *la* (tza)/*laa* (tza) oposizioa aztertu nuen eta bigarren *laa* zatiak silaba bi dituela agertzen da, espektrograma batzuei esker, ez dago bocal luzezik ez eta geminadarik.

(15) P. GARDE: Op. cit. in (10): 52.

satzen den hitza kontesto foniko berezi batean sartu behar da, balio metalinguistikoa emateko asmoz eta entonazioaren efekturik at lagateko; horretarako tokirik onena erdikoa da eta Ondarruko inkestetarako erabili dudan kontestoa: /Ostabe.....diñot/ izan da. Hori dela eta, interesatzen den berba mugatuta geratzen da, baina entonazio gabeturik. Pentsa daiteke baina, mugatzailea, aktualizatzailea edo artikuloa, hau da *-a*, enklitiko delako, berez, azentugabeturik dela, enklitiko guztiak bezala. Espektrogramen azterketek erakusten dute *hitz-oinaren*, edo *basearen*, silaba bat gailentzen dela eta gailentze hau indarrak ekarritakoa dela, lehen esan denez: ikus daiteke 2.2.0.0. espektroko /andri/-ren silabak (16).

Bidenabar, eta honetan datza nire iker-lanaren alderik jakingarriena, honetaz ohartu naiz: *singularrean*, artikuloa kokatzen den silaba altua da; silaba horren frekuentziaren *armonikoak* gorantz doaz, nahiz eta indarra handitu barik. Horrek esan gura du, silaba horretan, *azentu-oihartzuna* dugula eta oihartzun hori *doinuak* ekarritakoa dela (ikus. 2.2.0.0. espektrograman /andria/ taldeko soinuen armoniko-joerak, batez ere /i/tik /o/ra pasatzean).

Silaba bi baino gehiago dituzten unitateetan, *azentua duen silabatik eskumaldera doinua mantengitzen da silaba guztietan*. Horregatik entzuten dugu /adiskide/ edo /lengusina/ edo /batasuna/ edo /aurrerakada/ eta ez dugu inoiz ere entzuten /adískide/ ez eta /adiskide/ ez eta /adiskidé/, gazlererazko azentuagaz. Baina, arrazoi berberagatik —doinua mantengintzen ez dutelako— euskara (edo, behinik behin, bizkaiera) entzuteaz ohiturik ez dutenengandik entzuten da sarritan /Euskadiko Ezkerra/ edo /Hérrri Batasúna/ eta mila eta mila antzeko adibideak. Eta euskal berbak erdarazko esaldi batean sartzen direnean, erdal azentuari jarraitzen diote: “Trabaja en Euskaldúna” edo “tiene el título de Euskaltzáindi” edo “voy a Donóstia”.

Ohar honek esangura du azentu-oihartzuna zabaltzen dela *sapalda* batean (“plateau accentuel” deritzana, eta frantses esakera hau ingelesez ere gordetzen da), azentudun silabatik eskumara azentu-markoa agortu arte. Azalpen honen bidez, hobeto ulertzen da -eta justifika daiteke zergatik hain sarritan aipatu den euskal azentua doinuzkoa den eta zergatik S. Altube-k, adibidez, esan zuen:

“la palabra vasca es impulsivamente isotónica, o sea que todas las sílabas se pronuncian con igual fuerza impulsiva” (17).

(16) Gaitza da erabakitzea ea *r* bibranteak esbaribatiko bat sortzen duen -hori adierazteko *i* (?) txikerra jarri dut- ala *i* bokalak lotzaiki bat sortzen duen *o* bokalaraino. Dena dela, *dri* silaba da indartsuena espektro honetan, hau da, bigarrena hemen ere, orain baino lehenago aurkeztu ditudan espektrogrametan legez.

(17) ALTUBE tar Seber: *Observaciones al tratado de Morfología Vasca de D. Resurrección M. de Azkue*, **Euskera**-tik atera izan zuena, Bermeo, 1934.

edo

“(..) la definición del acento euskérico; en este idioma, el tono de las palabras aisladas normalmente pronunciadas es de una uniformidad casi absoluta” (18).

Gauzak horrela izanez gero, indar-azentua duen silabak eta doinua mantengitzen duten hurrengo silabek (hau da, lehenaren eskuman dau-denak) ematen diote entzuleari —denen artean— *azentu-itxuraketa*. Hori dela eta, *azentu-markoari* dagokionez, parametrorik handiena doinua dugu. Ohar daiteke, hain zuzen ere, doinuari esker lortzen den *azentu-oihartzuna* sapalda (“plateau”) bat legez errealizatzen delarik, unitate batetik bestera zabal daitekela, *azentudun hitz-talde* bat emateko, hau da, *azentu-markoa* gauzatzeko. Hau gertatzen da izena eta izen-lagun atributoaren artean, adibidez. Hurrengo sintagmak /ume ona/ edo /etxe ederra/ etenik gabe entzuten dira eta *mé* edo /txé/ silabetik aurrera doinua geratzen da /uméóná/ eta /etxéderrá/ emateko. *Azentu-marko* hau ederto ikus daiteke 2.2.0.0. espektrograman: doinuari esker, /andriona/ unitate bakar bat izango balitz legez agertzen zaigu; aurretik eta atzetik mugatuta, hemen dugu *azentuaren markoa*. Baina, bestalde, /ostabe/ unitateak bere markoa du eten baten bidez amaitzen delarik.

Naiz eta inguruko hizkuntzetan *azentu-oihartzun* fenomeno hau ez jazo, errusieran jazo ei da eta japonieran, adibidez, antzeko gauza dugu kontrako sapalda bat izanez, hau da, eskumatik ezkererantz. Baina, eta guretzat harrizkoa ez da, japonierari buruz ere —euskarari buruz legez— askotan esan da *azenturik* ez zeukala (19).

Azaldu dudan fenomenua —*oihartzuna*— ditudan datuekin *ez da pluralean jazoten*. Hau da, pluralizatailea -g, forma baten egituran sartuta gero, jesartzen den silabaren armonikoak *beherantz doaz* (ikus. 2.2.0.1. espektroko /andrak/ eta /onak/ berbetan azpimarratutako silabak). *Azentuari* dagokionez, pluraleko morfema honek oso ondorio berezi eta garrantzitsu bat duela esan daiteke, hemengo euskalkietan, behintzat. Enklitiko delako *azentu gabeko* izanik, bereizitasun bi ditu: alde batetik, ez du *azentu-oihartzunik* hartzen eta, beste alde batetik, Ondarroan, behinik behin, hitzaren *azentua*, bera, atzeratu egiten du, aurreko silabara bial-

(18) —: Op. cit. in (7): 21 orr.

(19) E. POLIVANOV: “La perception des sons d’une langue étrangère”, in TCLP, 4: 79-98 orr. Iker-lan horretan, argi ta garbi egileak dio: “La conviction régnait chez les savants russes qu’en japonais il n’y avait pas d’accent du tout”: 87 orr. Bestalde, cf. nire hipotesia hobeto ulertzeko N.S. TRUBETZKOY-ek dioena *Mie-ko* (Nagasaki-n) japoniesari buruz: “La mise en relief accentuelle peut embrasser toute une suite de prosodèmes, de sorte que cette série de prosodèmes, peut éventuellement former un mot tout entier”, in *Grundzuge der Phonologie*, J. Cantineau-k *Principes de Phonologie*, itzulpenetik, Paris, 1967: 218.

duz. Horrela, 2.2.0.1. espektoan, armonikoei dagokionez, /andragonagdi/ talde honetan, /an/ silabatik aurrera armonikoak beherantz doaz; eta, indar-kurbari dagokionez, hartzen badugu, orain, /andrag/ unitatea lehenengo silaba bigarrena baino indartsuagoa dela agertzen da.

Hortaz, pentsatu behar da azentu-itxuraketa morfologiagaz lotuta dagoela gure hizkuntzan eta azentu-markoa finkatzeko morfema bakoitzaren efektua kontutan eduki beharko genuke. Arrazoa hau da: base edo hitz-oin bati lotzen zaizkion morfemak (hizkuntza eransle baten aurrean gaude) atzizkiak direlarik, bakoitzaren efektuak alda dezake hitz-taldearen muga eta azentu-itxuraketa. Nahiko aspalditik aurkeztu nuen morfemen banaketan —azentuari begiratu— izen forma batean sartzen direnek ez dute efektu berdinek (20). “Grosso modo” baina, efekturik handiena eta pertinenteena pluralegilearena da.

Hitz batez, hona nire ondorioak:

- Unitate azentugarria silaba da.
- Euskal azentua indarrezkoa da, baina.
- Azentu-oihartzun bat ageri da, doinuaren bitartez, azentudun silabatik eskumara, eta oihartzun hau sapalda batean (“plateau”) zabaltzen da, singularreko formetan.
- Pluraletan, bereizi behar dira lehen-denborazko kasuen formak eta beste guztiak, morfologiari dagokionez eta, jakina, azentu-itxuraketari dagokionez. Leku-denborazko formen itxuraketaz ez naiz hemen arituko (21). Beste pluraleko formen egitura, jakina denez, honela da: Hitz-oina (edo Basea) -a -g-funtzio marka, -g- konpontzaile hau pluralegilea izanik. Deskripzioak erakusten du pluralegile honen silabak (ezin naiz hemen sartu morfonologiaren zehaztetan) ez duela oihartzunik hartzen eta bere eskuman dauden silabek ere ez.
- Bisilabadun hitzetan, -g-ren efektu atonizatzaileak hitzaren azentua atzera bidal dezake: /andri/ hitzak bigarren silaban azentua dakar, baina /andrak/ lehenengoan.

– Euskaran, azentu-markoa hitz-taldea izan daiteke beti. Hiztegiko unitate ezberdinek talde bat eratzeke gramatikari edo/eta pragmatikari dagokien zenbait baldintza bete behar dute: adibidez sintagma bat eratzea (*andriona*). Bestalde eta esan denez, markoak azentudun silaba

(20) K. ROTAETXE op. cit. in (3), 4 Kap.: *Sistema acentual en formas ligadas nominales* - 4.1 Kap.: *Clasificación acentual de los morfemas* eta honi buruz datozen *observaciones*.

(21) Aldeak ikusteko, cf. op. cit. in (3), 3.10 kap. morfologiarako eta 4 kap. morfemen banaketarako.

(*gailentzea*) besarkatzen du eta bere barruan mantentzen den soinu-parametroa doinua izanez, doinua dugu markoaren lokarria. Horregatik entzuten diren hitz-taldeak erritmo-taldeekin lotuta daude, zalantza barik.

— Pluraleko formeetan singularrekoetan baino *eten* gehiago ager daitezke pluralegilearen efektuagatik.

— Azkenez eta goiko e) itaunari zera esan behar da: azentu-itxuraketa aldean utzita, hiztegi baseak badauko azentua eta ditudan datuen arauerara, hitzik gehienetan bigarren silaban —ezkerretik kontatuta— jausten da, nahiz eta hitz batzuetan lehenbiziko silaban egon. Aztertu dudana euskararen, azentuaren kokaguneak bereiz dezake zenbait oposizio: /báso/basó/; /txistu/txistú/; /hónek/honék/; ... (22).

1.2.1. *Euskal azentu motak*

Orainsu azaldutako azentua ez da bakarra gure hizkuntzan. Behin baino sarriago aipatua izan denez (23), lau azentu mota bereiz daitezke euskararen. Batzuen ustez, egoera honek aukera bat eskatzen du azentu bakar bat irakaskuntzan eta mass-medietan eredutzak eskaintzeko, euskarari barietateen arteko aukera bakarra egin zen bezalaxe. Nire ustez, baina, badago zer edo zer uniformitate hori baino garrantzitsuagoa dena: irakasle bakoitzak ezagutu beharko luke bere azentua zelan gauzatzen den errealizazio hau bere ikasleei irakasteko gauza izateko. Argi dago, baina, horrelako prestakuntza ez dela gaur egun ematen ez Eskoletan ez eta Fakultateetan. Gauzak honela izanez gero eta moteen arteko aukera egitekotan, azaldu dudana motaren alde nago, arrazoi bikatik: a) soziolinguistikari dagokiona: azentu mota hau Mendebaldekoa da eta bere eskemari begiratzen badiogu (eta ez ebakera indibidual bati), hau da, Fonetika hutsetik Fonologiara igarotzen garenean *pertinentea* zer den topatzeko, orduan eskema hau hiztunik gehienok duguna da; b) hizkuntz barruko arrazoiak: azentu mota honen ezaugarriok euskal azenturaren bereizitasuna azaltzen dute. Alde batetik, indar azentua delako, historian zehar jazo diren kontrakzioak eta gaur egun oraindino gertatzen direnak (ikus. espektroetan, *ostabe* berba, “ostera bere” adierazteko) aditu ahal ditugu; bestalde, doinu oihartzunak dituen ondorioek erakusten digute zergaitik

(22) — op. cit. in (3): 161-162.

(23) L. MICHELENA: “A Note on Old Labourdin Accentuation”, in ASJU, 6: 110-120, 1972.

N. HOLMER: *El idioma vasco hablado*, San Sebastián, 1964.

W. JACOBSEN: “Nominative-Ergative Syncretism in Basque”, in ASJU, 6: 67-109, 1972.

hain sarritan (24) aipatua izan den doinuaren garrantzia gure hizkuntzan. Gainera, doinu oihartzun hau ez da jazoten inguruko hizkuntzetan eta euskarak berezkoa duela pentsatu behar da.

1.3. Grafiari eramateko proposamena

Goian esan denez, nire *Estudio estructural del euskara de Ondárroa* liburuan azentuari buruzko euskal morfemek dituzten propietateak azaldu nituen. Arazo horretaz, zehatz eta mehatz hor aritu nintzan eta, ez dut hemen astirik azalpen luze hoiak errepikatzeko, kritikarik izaten ez den bitartean, behinik behin. Zelan edo holan, baina, proposatuko dudana notazioa ulertzeko beharrezkoak dira.

Bestalde eta jakina denez, azentua notatzeko, diakritiko batzuk erabiltzen dira, benetako azentuaren gorabeherak erreflejtzeko gauza ez direla izaten jakin arren.

Gure kasuan, diakritikoren bidez erabilkeran jazoten diren azentu-itxuraketa motak (singularreko eta mugagabeko sekuentziak vs. pluralekoak edo leku-denborazko singularren sekuentzien itxuraketak etab. (25) bereizi beharko ditugu. Hitz batez esateko, hau da diakritikoen erakutsi behar dutena: itxuraketa mota biren arteko aldea; jakina denez, sekuentzia batzuetan doinu oihartzuna geratzen da eta beste batzuetan, ez. Diferentzia hau jasoteko, diakritiko tipo bi erabiliko dira. Gainera, jakin badakigu barbarik gehienetan azentua bigarren silaban jausten dela, baina beste batzuetan, lehenean, eta alde hau ere agertu behar da. *Estudio estructural del euskara de Ondárroa* delakoan proposatu nuen notazioak ekonomia-erizpideak bilatzen zituen batez ere, diakritiko bakar bat eskainiz: diakritikoa, hain zuzen, azentu-eza adierazteko.

Nire oraingo ikuspunduz, diakritiko bi erabili beharko liriteke: azentu eza adierazteko eta azentua adierazteko. Diakritiko hauek erabiltzeko araquak hauek dira:

A.1: [˘]ikurra azentudun silaban ipini behar da. Izan daiteke lehena edo bigarrena (báso/basó; txístu/txistú, etab...).

A.2: maileguzko hitzak aldean utzita, diakritikoa duen silabatik aurrera doinua mantengitu behar da, ahozkatzean, hitza edo hitz-taldea amaitu

(24) Ez bakarrik AZKUEK eta ALTUBEK, lehen esan denez, ikus. baitxe ere: J. BASTERRETXE "Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica" (I), in *Fontes Linguae Vasconum*, 18: 353-393, eta (II) in *id. id.*, 21: 289-338, 1974 eta 1975.

(25) K. ROTAETXE op. cit. in (3): 555-563.

arte: adib. *gizónari* forma honetan doinu sapalda (“plateau”) sortzen da azentutik aurrera; gauza berbera esan gura dugu *gizónek* mugagabeko ergatiboan, edo *gizónak* singularreko ergatiboan edo *gizonáगतik* (azken honen pluralez, geroago arduratuko naiz), idazten ditugunean.

A.3: maileguzko berbek aparteko tratamendua merezi dute. Dirudieenez, hauek oihartzunik ez dute edukitzen: adibidez, /ze báso/ formak eta ergatibo singularreko /básoak/ formak edo hitz honen beste formek gaztelerazko azentua dute.

A.4: [˘]diakritikoa agertzen den silabak ez du azenturik ez eta oihartzunik, ez silabak berak, ez eta bere eskuman dauden beste guztiek, berba amaitu arte. Ad.: *gizónèi* edo *lagúnèkin* forma idatzita hauek ahozkatu behar dira azentu-oihartzun barik *nèi* silaban, lehen kasuan, eta *né* silabatik aurrera (hau kontatuta), bigarren kasuan.

A.4.1: salbuespen bat egin behar da hemen. Dirudieenez, *-गतik* morfema kontuan, bigarren azentu bat (“acento secundario”) edo ohartzen da. Paradigma honen azentua aztertu nuenea (26) [˘]diakritikoa erabili nuen honetarako. Adibidez, *gixónakâitik* idatzitako forma honetan, [˘]diakritikoak zera adierazten zuen: aurreko silaba (*na*) azentu barikoa izan arren *kâi* silaban eta honen hurrengoan (*tik*) doinua ez zela behean geratzen, beste pluraleko formatan jazoten denez (ikus. goiko *lagúnèkin*). Baina, diakritikoa erabiltzeko beharra eztabaigarria da, ekonomiaren aldeetik. Azken baten, *lagúnakâitik* edo *lagúnengâitik* idaztean ere ez dago akats handirik pertinatea den gailentzea gordetzen den neurrian. Notazio hau gordetzekotan, irakurtzeko arau batek zera esan beharko luke: unitate berberan diakritiko berdin bat silaba bitan agertzen denean, erdiko silabak ez du doinua mantentzen.

2. ENTONAZIOA

2.1. Entonazioa Hizkuntzalaritza Orokorrean

Entonazioaren funtzioa ez da azentuarena. Entonazioak ez du kontrasterik bilatzen hitz batean, ez eta hitz-talde batean. Entonazioaren bidez —eta hau hizkuntza guztietan— esaldi motak bereiztuten ditugu. “Esaldi” hitza eta ez “perpauza” erabiltzeko badago arrazoirik. Azken hau gramatika-nozioa dugu eta lehena, ordea, pragmatikari dagokio eta hemen interesatzen zaiguna da. Pragako hizluntzalariek aspaldidanik erakutsi zutenez, esaldi batean zati bi bereizten dira: tema/rema edo mintza-

(26) — op. cit. in (3): 3.09 Kap.: 498-509.

gaia/galdegai. Bestalde, “esaldi/perpauza” oposizioari dagokionez, beste hizkuntza batzuetan “*énoné/phrasé*” edo “*utterance/phrasé*” etab., gauzatzen da.

Ez da esan beharrik hizkuntza guztietako hiztunak zenbait bide dugula benetako zalantza (ala sasi-zalantza) batean garela adierazteko, “deklarazio” bat (baiezkoa edo ezezkoa) egiten ari garela adierazteko edo agindu bat ematen ari garela komunikatzeko. Baina ditugun hiru esaldimota hauek hitzek soilik ez dituzte bereizten. Ahozko bizkuntzan, hitzek eta hitzordenak egiten ez dutena entonazioak, hain zuzen, egiten du. Adibide batez baliatuko naiz: Frantsesezko honelako hitzen kate bat /qui vois-tu Marie/ eta, bada ez bada ere, aurreratu gura dut /qui tu vois Marie/ ordenagaz gauza berbera izango litzatekeela, hiru esaldi izan daitezke:

- 1) /Qui vois-tu, Marie?/
- 2) /Qui vois-tu? Marie?/
- 3) /Qui vois-tu? Marie./

eta Ingelesezkoari bardin gertatzen zaio:

/what do you say Mary/

- 1') /What do you say, Mary?/
- 2') /What do you say? Mary?/
- 3') /What do you say? Mary./

edo Gaztelerazkoari:

/qué dices Mary/

- 1'') /Qué dices, Mary?/
- 2'') /Qué dices? Mary?/
- 3'') /Qué dices? Mary./

eta baita ere Euskarazkoari:

/zer esan duzu Miren/

- 1''') /Zer esan duzu, Miren?/
- 2''') /Zer esan duzu? Miren?/
- 3''') /Zer esan duzu? Miren./

Kasu guztietan, honako honetaz ohar gaitzke: esaldi mota bakoitzari dagokion entonazioa jartzen ez dugu bitartean, *ez dago mezurik*. Beste

zer edo zer erakusten digute goiko adibideok: mezu desberdinak adierazteko, *esaldiaren zati baten doinua* aldatu behar da.

Hizkuntzalaritza Orokorrean doinu aldaketa horretaz eztabaidatu egin da. Hizkuntzalari batzuen eritziz, entonazioaren aldaketak “continuum” batean jazoten dira eta, beraz, ez dira fonologikoak. Beste batzuk, ordea, esaldiaren zati baten aldaketak “diskretoak” direla uste dugu eta, ikuspuntu honetatik, entonazioa fonologiari dagokio, nahiz eta hiztunen artean errealizazio bat baino gehiago agiri: funtsez, baina, hizkuntza baten barruan guztiok eskema bardin batzuk gordetzen ditugu. Askotan, gainera, eta problemari oso “grosso modo” begiraturaz, eskema minimo batzuk hizkuntza desberdinetan aurkitzen dira. Aipatutako adibideei buruzko kurbak, gutxi gorabehera, honela izango lirатеke (27):

1. Lau hizkuntzetan: zati bi ditugu; lehena goitik behera doala eta eten ahul bat izanez gero, bigarrena gorantzeko joera duelarik, sostengitzen da.

2. Lau hizkuntzetan: lehen zatia goitik behera joan eta gero, eten handiago bat dugu eta bigarren zatia behetik zeharo gora doalarik (ingelesez erditik gora).

3. Lau hizkuntzetan: lehen zatia goitik behera; gero eten handi bat (onartu behar da hiztun bik hartzen dutela hitza, hemen) eta bigarren zatia goitik behera zalantza barik.

Ohar interesgarri batzuk atara daitezke hemendik:

a) Entonazioaren markoa ez da azentuarena. Entonazioak esaldia du markoa.

b) Erabiltzen den parametroa doinua da beti.

d) Esaldiaren barruan entonazio-talde batzuk sortzen dira, askotan joera oposatua dutelarik; hau da, esaterako, “deklaratibo” esaldiaren kasua, temari eta remari dagozkien kurbak (entonemak) kontsideratzen direnean, batez ere.

2.2. Euskal Entonazioa

Azterketan aurkitu ditudan kurbak beste hizkuntzetarako aurkezten direnakaz gonparatuta, ez da alde handirik ikusten. Funtsezko eskemak, gutxi gora behera, geratzen dira, hizkuntzaz hizkuntza, deklarazio bat

(27) Kurbak orain baino lehanago aurkeztu ditut, ikus. op. cit. in (3): 170-206 eta in (11).

egiteko, itaun bat egiteko edo agindu bat emateko. Dena dela, ohar bat egin behar da euskararen entonazioari buruz: Ondarroan hartu nituen datuetan, galdegaia eta aditzaren artean *etenik ez dago inoiz*, unitate biak talde erritmiko bat egiten baitute; horregatik, pragmatikaren aldetik, unitate bakar bat bezela funtzionatzen dute. Adibidez, Ondarroako esaldi honetan /sapatun beran aitzaz zinea du/, hau da “larunbatean bere aitzagaz zinera doa” eten bat ohartzen da //sapatun/ eta /beranaitaz/ taldeen artean, txikiagoa ala handiagoa izan daitekena, erritmoari begiratzuz. Eta /beranaitaz/ eta /zineadu/ taldeen arteko etena derrigorrezkoa da, esaldiaren zati nagusi bi bereiztuteko. Baina /zineadu/ talde bat delako, /zinea/ eta /du/-ren artean ezin da etenik sartu. Gauza bera ohar daiteke /Juan Etxebarria Ondarrun bizi re/ esaldia entzuten denean: etenik bakarra /Juan Etxebarria/ esanda gero dator, besterik izan gabe. Ez da harritzekoa: entonazioaren zatiak —eta hauek ekartzen dituzten etenak— hiztunak komunikatzen duenagaz lotuta doaz eta, alde hortatik, galdegaia —tematik at delarik— rema eratu behar du.

Ondoko espektrograman (ikus. 2.7.0.) /arratoi orda/, *hor* eta *da* unitateen artean ez dago etenik. Gauza bera dugu 2.2.0.0. espektroan: entonazioaren bigarren zatia /onada/ dugu etenik gabe; arrazoi horregatik 2.2.0.1. espektroan /onagdis/ irakurtzen da, eten barik.

Badirudi ere entonazioaren gorabeherak ez direla, gure hizkuntzan, oso markaturik. Interesatzen dena, halere, aldaketak eta etenak dira. Ez dut hemen kurba-motarik aurkeztuko, orain baino lehanago egin nituenak mantengitzen ditudalako. Kurba joeraz soilik arduratuko naiz:

a) *Esaldi asertiboa*

Kurbak zati bi ditu: lehena gorantz doala (tema) eta bigarrena (tema) beherantz oso doinu graberik hartu barik:

/gaur goizean ≠ ≠ eresketa egin dut/ esaldia horrela ebakitzen da. Eta galdegaia /gaur goizean/ izango balitz, ebaketa honela izango litzateke:

/erosketa ≠ ≠ gaur goizean egin dut/

Kasu bietan, lehen zatia gorantz doa eta bigarrena beherantz, etena (≠ ≠) izan eta gero.

Eta, honelako zati batzuen barruan, zenbait hedatze sar daitezke: izen-sintagmari dagokionez, esaterako, erlatiboa hedatzea dugu. Orduan, eta printzipioz, erlatiboa eta dagokion sintagmaren artean ez dago etenik. Hau erlatibo determinatiboetan argi ta garbi entzun daiteke. Baina, erlatibo apositiboa denean —eta honelako erlatiboak ere euskaran baditugu— eten txiki bat egin ahal da. Abididez, eta ≠ ≠ eten nagusia eta ≠ eten txikiago bat adieraziz, honelako etenak (eta melodiaren aldaketak) ditugu:

/erosi doten orixu ≠ ≠ txarra da/, /erosidotenorixu/ talde bat izanik, edo

/dendanerosidotenorixu ≠ ≠ txarra da/, lehen taldea /dendanerosidotenorixu/, izanik. Baina:

/orko orixu ≠ neuk erosi dotena ≠ ≠ txarra da/, /neukerosidotena/ erlatibo apositiboa izanez.

Enumerazioetan, zera oharzen da: sintagma bakoitzaren artean atenak izaten dira, lehen sintagma duen melodia bera errepikatuz, eta, esaldi asertibo guztietan legez, etenik handienak zati bi ematen dizkigu. Esan gabe doa, teman sartzen diren sintagma guztiak gorantz doazela (“anticadencia”, Navarro Tomas-en hitzez baliatuz) eta reman sartzen direnak beherantz, lehen esan dugunez. Hona hemen Ondarroako esaldi honetan jozoten diren eten txikiak eta eten nagusia:

/ogixe ≠ esni ≠ azukri ≠ taorixu ≠ ≠ danakaroture/

Euskara batuko esaldi honek eskema berberari jarraituko lioke:

/ogia ≠ ardoa ≠ okela ≠ ≠ denagustatzenzait/

b) *Itaunak*

b.1 *Zuzenak* izaten direnean, kurba behetik gora doa eta esaldia oso luzea izaten ez denean ez da etenik entzuten. Garrantzitsuena dena kurbaren joera da:

/kaferikartukoduzu/

Bestalde, lehenbiziko silabaren eta azkenaren arteko doinuaren alde handiagoa edo txikiagoa izan daiteke: hemen “continuum” baten aurrean gaude eta hiztunaren expresibitateak zerikusi handia du alde horren neurrian. Baina hiztun guztiok gorde behar duguna kurbaren joera da.

b.2 *Galderezko morfema bategaz* hasten diren esaldiak, beste hizkuntza askotan bezala, doinuaren gailurra morfema horretan egoten da. Euskaraz, nire ustez, kurba geroago beherantz doa baina azkenengo zatia ez doa oso behera. Alde hortatik, euskara gatzelerari baino frantsesari hurbiltzen zaio gehiago.

b.3 *Zehar itauna:*

Nahiz Ondarroako:

/preuntateoste ≠ ≠ zeindenJon/ esaldian nahiz /itaundu didate ≠ nor den Jon/ beste honetan eskema bera ikus daiteke. Zati bi ditugu:

lehen goitik behera, etena eta gero bigarren zattia behetik gora doana, baina galdera zuzenean baino beherago gelditzen da.

b.4 Askotan, galdera zuzeneko egitura duten esaldi batzuetan itauna bera berba bati (eta ez aditzari) dagokio. Adibidez, 2.8.3. espektroaren azterketan, hau nabaritzen da: /xuan/ berba ahozkatu ta gero, eten luze bat dugu, tematik rema aislatzeko. Rema hau eten horren ondoren dator eta, itauna delako, armoniko guztiak gorantz doazela bistan dago. Baina joera hau batez ere /arin/-eko /a/ silaban nabaritzen da; eta egia esateko, itauna da ea Juan “arin” datorren ala ez, /Juan arin dator?/ esaldi horretan.

d. Azkenez, esklamaziokoek eta agintzeko esaldiek goitik beherako kurbak edukitzen dituzte:

/Etorri hona/ eten barik ahozkatzen da eta aipatutako kurbaren joerari jarraituz. Gauza bera Ondarroako honetan:

/zelakotxikixe/

Berririo esaldi mota hauetan lehen aipatu duguna jazoten da. Mintzagaia edo tema izatekotan, hau ahozkatuta gero eten luze bat dugu galdegai taldea (edo rema) ahozkatu baino lehenago. Hau ikusten da 2.9. espektroan: /Juan ≠ ≠ etorriarin/. Rema honetan, ez dago hitz bakar bat, bi baino. Baina entonaziorako, /etorriarin/ entonema bakar bat da eta, jakina, ezin pentsatu etenik jazoten denik.

3. AZENTUAREN ETA ENTONAZIOAREN ARTEKO HARTUEMONAK

3.1 Fenomenu biak nahastuteko arrazoiak

Ikusi ditugun fenomenu biak nahastuteko arrazoirik handiena honetan datza: batak eta besteak doinua erabiltzen dute gure hizkuntzan. Gainera, azentu oihartzunak sortzen dituen *erritmo taldeak* esaldiaren barruan mantengitzen dira. Egia esateko, hizkuntza gehienetan hitzaren azentua aldatzen da esaldi baten barruan sartuta gero, A. BELIĆ esan zuenez aspalditik:

“Il n’y a aucun système accentologique de mots isolés qui ne change un peu de nature dans la phrase, étant donné que dans la phrase les accents de mots doivent s’adapter à l’accent phraséologique. Mais cela ne signifie pas qu’ils changent fondamentalement” (28).

(28) A BELIĆ: “Accent de mot-Accent de phrase”, in TCLP, 4 (1931): 183-187.

Zalantza barik, azentua gauzatzeko doinua erabiltzen duten hizkuntzetan (euskaran legez) sortzen den “adaptazio hori” (Belić-en hitzez baliatuz) edo “moldaketa” hori erraztuten da. Gainera, ez da ahaztu behar euskara hizkuntza eranslea dela eta gure “hitzak” (zer edo zer deitzeko) benetako sintagmak direla.

3.2 Bereiztuteko beharrak

Baina, halan eta guztiz ere, fenomeno biak behar den moduz ulertzeko bereizi behar ditugu. Gainera, nahastuteko arrazoiak esaldi aserti-boetan, batez ere, jazoten dira. Agintzeko esaldietan, adibidez, fenomeno bien arteko aldeak argiago ikusten dira. Aipatua izan den azkenengo espektroan (ikus. 2.9. esp.) zera ikus daiteke: mintzagaia (edo tema) den berbaren /Juan/ eta galdegaia (edo tema) den taldearen /etorriarin/ artean eten handi bat dugu eta eten hau entonazioari, bakarrik, zor diogu. Bestalde, /etorri/ hitz horretan azentudun silaba /to/ da, duda barik, eta esaldian sartuta egon arren, silaba horrek bere indarra gordetzen du, espektroaren goiko kurbak erakusten duenez. Baina, jakina, doinua entonazioari moldatu behar zaio eta, ikusten denez, doinu oihartzunaren armonikoak beherantz doaz informazio mota bi adierazteko: a) hiztunak zer edo zer agindu duela eta, ondorioz, entzuleak agintekera dagoela mezuan aditu behar du; b) hiztunak mezuaren amaiera ematen diola.

Hain zuzen ere, hizkuntza erabiltzen dugu gizon emakumeok gizar-tean elkarrekin komunikatzeko. Eta komunikazioaren unitateak esaldiak dira; hiztunok hauek moldatzen dizkiogu errealitateari edo adierazi gura dugunari, erritmo eta melodiaren bidez. Moldaketa hau ondo egiteko, *komunikazio gaitasuna* (eta ez gramatika gaitasuna) beharrezkoa da: NORK? NORI? ZERTAZ? NON? eta NOIZ? itaunei dagozkien erantzun zuzenak emateko. Entonazioak Pragmatikari jarraitzen dio. Ikusi dugun azentua (ez naiz ari izan azentu expresiboz), ordea, baldintza hauetatik at azter daiteke eta aztertu behar da.

Dena dela, fenomeno bi hauek ahozko hizkuntzari dagozkio, esan denez. Eta euskararen ezaguera, hizkuntza bizi baten ezaguera den neurrian, erdi ezaguera izango da azentuari eta entonazioari buruzko arau praktiko batzuk ematen ez diren bitartean. Horregatik eta amaitzeko, eskertu gura diot Euskaltzaindiari II Jardunaldi hauek antolatzeagatik.

AZENTUA ETA ENTONAZIOA: HARREMANAK

Euskal ebakeraz II. jardunaldiak

Durango, 1986-V-29

Karmele Rotaetxe

Orain dela gutxi, gure lengusin barritsu batek Bilboko Jantoki txinatarrez ziharduela, Elkano kaleko jaubéaren “elebitasun berezia” gomuta izan zigun. Egia esan, delako gizonak, bere jantokitik alde egiten dugunean, “agul eta gelo alte” esan ohi duigu, integrazio frogak eskaintzeko asmoz edo bere *espainolezko* berbaldia amaitu duela erakusteko. Eta berbaldi honi buruz, lengusinak gaineratu: “Pero habla castellano en chino”.

Hau anekdota hutsa da eta anekdotatzat hartu behar. Baina, ohartzekoa da gaur eta hemen interesatzen zaigun gaia orduan eta minutu pare baten zabaldua geratu zela. Goazen ba pausaka aztertzen gure txinotarrak egiten duena:

— Alde batetik, euskarazko soinuak bere hizkuntzaren soinuei hurbiltzen dizkie eta:

/aguRetageroaRte/ esan ordez

/aguletageloalte/ dio.

Hau da, euskarazko sekuentzia fonikoaren zati edo soinu batzuren ordez, beste batzuek ahozkatzen ditu. Jakina denez, “Hitzaren Fonologia” deritzanak soinuen arteko oposizioak erakutsi behar ditu, soinu horren *fonema*-balioa egiaztatzeko. Delako oposizioak katearen puntu berberan jazo behar direla gomutaratu behar dugu, oraingoz, azentuaren funtzioak bertan ez datzala ulertzeko.

Beste aldetik, goiko anekdota horretan “Habla castellano en chino” esaldi horrek zer esan gura du? Aipatu dugun trukeagatik ez guke esango, zalantza barik, “habla euskara en chino”. Esan gura duena zera da: gizon txinatar horrek, gazteleraz berba egiten duenean, txineraz izango balitz legez egiten du. Eta, espainolezko berbak ebakitzen dituenean, goian aipatutako trukez gainera nabarmena agertzen dena hau da: espainolezko berbak erabili arren, hizkuntza horren gramatika arauak ondo

gauzatu arren, gizon horren jardunako estalkia, azala, "azaldaketa" (Azkueri jarraituz) ez da sekula izaten gaztelanu batek erabiliko lukeena. Hemen deitzen dugun "estalkia" edo "azaldaketa" azentuagaz eta entonazioagaz lotuta dago, hain zuzen; fenomeno bi hauek katea fonikoaren zatiei edo segmentoei ez dagozkie eta, horregatik, hizkuntzalari batzuek "suprasegmentalak" dei egin diete. Guk, hemen segmentalak ez direla esango dugu, beste izenik eman gabe. Fenomeno hauei buruz, ezaguera praktikoa denok dugu (lengusinak legez) eta, behin baino sarriago, delako hiztun batek "kanpoko azentua" duela esaten dugu, adibidez. Kontua da euskaldun berrien artean sarriegi gertatzen dela hori eta Euskaltzaindiak berriro batu gaitu hemen (orain lau urte, Azkoitian egon ginian) euskararen berezitasun ez-segmental hauei argi apur bat ekartzeko.

Euskaldun berri askok erakusten dute, "atzeritar azentu" hori arrazoi bigatik azal daiteke:

a) Dugun eta, mendeetan zehar, eduki dugun hizkuntz-kontaktoagatik: gure gizartean gaztelera (edo frantsesa) menperatzen da eta interferentziarik boteretsuena segmentalak ez diren fenomenuetan agertzen da. Horregatik, hizkuntza askotako Plangintza ("Language Planning" deritzana) eratzen denean, arduradunek kontutan hartzen dituzte ("Corpus Planning"-aren barruan) "Rules of Punctuation" and "Spelling"-en zehatzak (1). Delako erregelei esker, hain zuzen, ikasleak ikasi ahal ditu azentuak eta entonazioak dituen ondorioak bai grafian, bai eta ebakeran. Gure artean, horrelakorik ez da egin.

b) Oraintsu arte, euskararen irakaskuntza idatzitako hizkuntzaz batez ere kezkatu da, euskara batua idazteko hizkuntzarako sortu zelako. Baina, inoiz ere ez da larregi azpimarratuko hizkuntza naturalak ez direla gramatika erregelen multzoak bakarrik, ez eta *segmento fonikoei* dagokien aginte multzoa ere, soilik. Gizon-emakumeok ditugun hizkuntzak (hau da, hizkuntza naturalak eta ez artifizialak) hizkuntza biziak izanez gero, *ahoz* erabiltzen ditugu jatorriz, lehenbiz eta batez ere. Idatzitako hizkuntzagaz parekatuta, ahozko hizkuntzak duen lehentasuna adituteko, gogan eduki behar ez dagoela haurrik berba egin baino lehenago boligrafoa erabiltzen duenik. Azentua eta entonazioa ahozko hizkuntzari dagozkio eta fonologiaren sailean sartzen dira, euren ondorioak bai gramatikan eta bai pragmatikan ageri arren. Esan daiteke ez dagoela hizkuntzarik, era batez edo beste batez, azenturik eta entonaziorik ez duenik (doinuen hizkuntzez (2) ez naiz ari), munduko hizkuntzak ezagutzen ditugun

(1) Ikus, adib. MOSHE NAHIR: "Status Planning and Corpus Planning in Modern Hebrew", in J. MAURIS (ed.) *Politique et Aménagement Linguistiques*. Gouvernement du Québec, 1987, 257-316 or.

(2) Hau da, doinuak, soilik, eragindako aldaketak dituen hizkuntzak (txineraren euskalkiak, serbo-kroata, etab...)

neurritz, jakina. Zoritzarrez, ahozko euskara gutxi (edo txarto) ezagutzen dugu, deskripzioak falta zaizkigulako. Euskarari buruz, dogma batzuek irauten dute, hizkuntzaren benetako egitura ezkatutaz. Baina, azentua eta entonazioa finkatzeko, dogmek ez dute baliorik eta deskripzio gehiago beharko genituzke, derrigor. Bestalde, bistan dago edozein deskripziok —bere helburua lortzeko— finkatu behar duela, lehenbiziz, zer diren fenomeno bata eta bestea. Hori dela eta, II. Jardunaldi hauetako eztabaidak ireki baino lehenago, argi eta garbi eduki behar dugu, gutxienez, zelan ageri diren azentua eta entonazioa beste hizkuntza askotan (eta ez, soilik, espainolean edo/eta latinean), eta ze funtzio bete duen batak eta besteak (3). Jakite honek baimendu behar diguna hau da: a) azentua eta entonazioa beste fonologiaren fenomenuetatik aislatzea; b) azentu eta entonazioa, parean jarrita, fenomenu biren arteko aldeak argitzea. Horretarako, onartu behar da euskal azentua zelakoa den jakiteko, aldez aurretik jakin behar dela zen den azentua Hizkuntzalaritza Orokorrean. Hori dela eta, hauxe da erabiliko dudana eskema:

1.—*Azentua*; 1.1. Hizkuntzalaritza Orokorra ematen duen azalpena. - 1.2. Euskal azentuaren gauzatzea. - 1.3. Grafari eramateko proposamena.

2.—*Entonazioa*; 2.1. Hizkuntzalaritza Orokorra ematen dituen azalpenak eta gure aukeraren arrazoiak. - 2.2. Euskal entonazioa.

3.—*Azentuaren eta entonazioaren arteko hartuemonak*; 3.1. Fenomeno biak nahastuteko arrazoiak. - 3.2. Bereiztuteko beharrak.

Bestalde, aurkeztuko ditudan ideiarik nagusienak ez direla berriak aitortu behar dut (4) eta Euskaltzaindiaren barruan ere azaldu ditut (5). Baina, ordutik hona, nire hipotesia aldatzeko arrazoirik ez dut ikusi.

1. AZENTUA

Linguistika orokorrean, azentuaren estudioa Fonologian sartu ohi da eta, Fonologiaren barruan, *Azentologian*.

Erabiliko dudana terminologiaren, zer edo zer esan behar: *soinua* “sonido”, “son” edo “sound” adierazteko gordeko dut, eta *fonema* (behar

(3) KARMELE ROTAETXE: *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*. L. Zugaza. Durango. 1978. 2.0.2.1 eta 2.2 Kapit.: 140-206 orr.

(4) —: “L'accent basque (Observations et hypothèses)” in *La Linguistique*. Revue Internationale. International Review, 1978-2, Paris, New York: 55-77.

“L'accent basque”. *Abstract*, in *Language and Language Behavior Abstracts*, 13/4, 1980. San Diego, Ca.: 964, ref. 05118.

(5) —: “Euskal Prosodiaz”, in *Euskera*, XXVI, 2. ald., 1981-1: 381-396.

izatekotan) “fonema”, “phonème”... adierazteko. Jakina denez, hiru parametro bereizten dira soinu bakoitzean: fisika-arloan, luzeera, bibrazio-anplitutea eta bibrazio-frekuentzia. *Perzepzioari* dagokionez, honela etortzen zaizkigu: lehena, *iraupena*, bezala: bigarrena, intentsitatea edo *indarra* (eta hitz hau gordeko dut): hirugarrena, goiera bezala eta, honetan lehenbiziko fundamentalaren frekuentziaz gainera, tinbrea eta *doinua* sartzen dira; horregatik eta ohituragatik, *doinua* gordeko dut hirugarren parametro hau izendatzeko. Beraz:

- Fisika ... luzeera; bibrazio-anplitutea; bibraz. frekuentzia.
- Perzepzioa ... *iraupena; indarra; doinua*.

Inziso gisa, azpimarratu gura dut zientzia guztietan preminazko dela terminologia. Eta funtsezko nozioak izendatzen dituen goiko hauetan *doinua* soinuaren parametro (eta konpontzaile) bat izanez gero, ezin dugu hitz bera erabili entonazioa deitzeko, fenomenu ezberdin biren aurrean gaudelako. Esaterako, soinu bakoitzean *doinua* dugu baina ez dugu entonaziorik, hau beste zerbaiti dagokio eta (ikus. beherago).

– *Zelan gauzaten da azentua?* Ez dago mila bide: edo azentuak soinu baten parametroei zer edo zer kentzen die (iraupenari edo indarrari edo doinuari, edo denei) edo, alderantziz, azentuak soinuari zer edo zer gehitzen dio eta, berririo, izan behar da edo iraupena, edo indarra, edo doinua. Munduko hizkuntzak aztertuak izan diren neurritz, bigarren prozedura hau erabiliena dugu; hori dela eta, gehigarri hau hartzen duen soinuak inguruko soinuen artean *gailetzen* da eta *gailendu* hitza gordeko dut “destacar” edo “mettre en relief” adierazteko, *gailentze* hitza esp. “prominencia”, ingl. “prominence” edo fr. “proéminence”, izanik.

Geroago ikusiko denez, entonazioak *doinua* erabiltzen du melodiaren aldaketak lortzeko. Azentuak erabiltzen duen parametroa, ordea, hizkuntza batetik bestera desberdina izan daiteke: gazteleran, adibidez, indarra da; frantsesean, berriz, *doinua*. Nahiz eta hizkuntza bi horietan hitz bera erabili, “acento” edo “accent”, ingelesak, esaterako, baditu hitz bi azentu-mota desberdin horiek izendatzeko: “stress”, lehen kasuan, “pitch”, bigarrenean. Baina, parametro hauek ez dute banaka funtzionatzen eta, aspalditik Maurice Grammont-ek erakutsi zuen indarraren gailentzeak erakartzen duela beti iraupenarena eta sarritan doinuarena, alderantzizko erakarrera jazo barik:

“L’intensité entraîne toujours avec elle la durée et souvent la hauteur; la réciproque n’est pas vraie” (6).

(6) M. GRAMMONT: *Les vers français, ses moyens d’expression, son harmonie*, Paris, 1913. S. KARCEVSKIJ-ek aipatua “Sur la phonologie de la phrase”, in *TCLP*, 4 (1931): 118-228, eta 201 bereiziki.

Behar bada, horregatik ere, indar-azentua benetako azentutzat hartua izan da, askotan.

Nire hipotesiak parametroen arteko erlazio hau oinarritzat hartzen du. Hori dela eta erakutsiko balitz oinarri teoriko hau zuzena ez dela, beronengandik datozen ondorioak egokitu beharko lirateke.

Hizkuntza baten azentuz eta entonazioz arduratzen den azterketak argitu behar du, alde batetik, azentu-parametrorik garrantzitsuenen zein den eta, beste aldetik azentu-gauzatzeak eta melodiaren gora-beherak ze hartuemonetan gelditzen diren. Hau lortzeko, abiapuntutzat onartu behar da —teoriaren mailan, behinik behin— fenomeno bi direla, bakoitzak bere markoa duelarik. Gure hizkuntzaren kasuan, baina, diferentzia hau egitea ez da erraz izan eta, behar bada, ez dela oraindino erraz onartzen. Betidanik, fenomeno biak nahastuta ageri dira. Adibidez, Altube-k *El acento vasco* liburuan “entonación” edo “acento” erabiltzen ditu, hitz biren arteko alderik —edo, behintzat alde teorikorik— egin barik (7) eta Azkue-k parentesien artean sartzen du (“la entonación”) “el acento” aipatzen duenean (8).

Dirudenez, gaurko egoera ez da asko aldatu eta ez da aldatuko behar ditugun oinarri teorikoak onartu arte eta hauei dagozkien definizioak adierazi arte. Zeren, oinarri batzuk finkatu ta gero, ikerlangileak ondorio berdinetara hel daitezke edo ez; dena dela, eztabaida dezakete. Baina, oinarri teorikorik gabe, ezin hel daitezke ondorio berberera, ez eta eztabaidarik eduki.

1.1. Oinarri teorikoak

Azentuari dagokionez, goiko lerrook oinarririk garrantzitsuenetarikoa bat finkatu dute: azentua da soinuaren parametroei esker marko baten barruan jazoten den gailentzea. Hortaz, Paul Garde-ren definizioa nirela egiten dut lan honetan, beste aurreko lanetan egin nuenez:

“mise en valeur d’une syllabe —unité accentuable— dans le cadre du mot —unité accentuelle—” (9).

Definizio honetan, nabarmena dena hau da: nahiz eta azentua silaba batean (geroago zehaztuko dugu hau) jausi, bere efektua hitz bati (hau ere zehatzago ikusi behar da) dagokio. Ikusten denez, hain zuzen ere, goiko definizioan gauzak ez dira “a priori” emanak. Adibidez, jakin behar

(7) ALTUBETÁR SEBER: *El acento vasco (en la prosa y en el verso)*, Bermeo, 1932, 219 orr.

(8) R. M. DE AZKUE: “Del acento tónico en algunos de sus dialectos”, in *Euskera*, VI, 1930: 282-297, 282 bereiz.

(9) P. GARDE: *L’accent*, Paris, P.U.F., 1968, 53 orr.

da zein den hizkuntza bakoitzaren barruan unitate azentugarria (“unité accentuable”) eta, hizkuntza askotan, silaba baldin bada ere —definizioan aipatzen denez— beste hizkuntza batzuetan segmento txikiagoa dugu, *mora*, hain zuzen. Euskarari aplikatzeko orduan, puntu hau erabaki behar da. Bestalde, azentudun unitatea ere (“unité accentuelle”) ez dago a priori emanda. Adibidez, gure hizkuntzarik gehienetan grafiari dago-kion unitatea (hitza) baino txikiagoa ez bada ere, bistan dago handiagoa izan daitekeela; horrela, hizkuntza batzuetan azentua hitzari dagokio (gaztelera, adib. “célebre” / “celebre” / “celebré”...) eta beste batzuetan, frantsesean legez, hitz-taldeari: “Monsieur” baina “Monsieurjean” eta “Monsieurjeandubois”. Bigarren kasu hau izatekotan, hitz-taldearen berbak hartuemon estuetan egon behar direla suposa daiteke.

Bistan dago, euskal azentuaz mintzatzeko, jakin beharko dugula zein den edo izan daitekeen *azentuaren markoa*. Zeren, aipatu dugun gailentze hori erlatibo nozioa baitugu, unitate azentugarria *beste batzuren gainean* gailentzen delako, sortzen den *kontraste* bati esker. Hain zuzen, azentuaren garrantzirik handiena bere *funtzio kontrastiboan* datza eta hau, marko batean gertatzen eta gertatu behar delako, *funtzio demarkatiboa* ere ba dugu. Hori dela eta, azentudun unitate batean —marko batean— sortzen diren kontrasteek eragiten dute *azentu-egituratzea* edo *azentu-itxuraketa* izendatu genuena (10) “configuration accentuelle” bihurtzeko. Beste moduz esanda, funtzio kontrastibo horregatik, marko bateko unitate azentugarri guztiek —gailendurik daudenek eta ez daudenek— moldatzen dute azentuitxuraketa. Euskal azentuaz arduratzean, konzeptu hau ere zaindu beharko da, nahiz eta gure estudioetan berria izan.

Beste oinarri batzuk argitu ditugu hemen: gailentzea unitate azentugarrian jazoten da; azentua ohartzten da kontraste baten bidez eta kontraste honek bere markoa du. Gainera, badakigu hizkuntza batzuetan azentua *libre* izaten dela (gaztelera...) eta beste batzuetan, *toki finko* batean. Oinarri guztiak batuta gero, azentu deskripzio batek finkatu beharko ditu:

- a) Unitate azentugarria: silaba? mora?
- b) Azentuak bereiziki erabiltzen duen parametroa, indarrak doinua eta iraupena dakartzala kontutan edukiz.
- d) Azentudun unitatea: hitza? hitz-taldea?
- e) Hitzaren edo hitz-taldearen barruan, ze tokitan kokatzen den unitate azentugarria: toki finko batean —beti bat delako (frantsesean bezala) edo arau batzuren bidez finkatu ahal dugulako (latinean bezala)—edo, alderantziz, toki mugikor batean (gaztelera bezala)?

(10) K. ROTAETXE: “Euskal Prosodiaz”, op cit.: 384.

1.2. Euskal Azentua

Roman Jakobson-ek dioenez, azalpen batek zera hartu behar du helburutzat: barianteen zehar, inbarianteak argitzea. Euskal azentuari dagokionez, delako “inbarianteen” bila joan behar da zehatz indibidualetan ez itoteko.

Orain hamar urte, euskarari buruzko lehenbiziko espektrogramak aurkeztu eta aztertu nituen (11). Azentuari buruz orduan atara nuen hipotesia, gaur ere —beste espektro berriak aztertuta gero— mantentzen dut (12).

Hortaz, goiko itaunei erantzuten saiatuko naiz:

a) Espektrogramei esker, euskararen unitate azentugarria *silaba* dela eta ez mora ikus daiteke. Euskararen azentua doinuzkoa zela hain sarritan aipatua izan delako, egiaztapen hau egin behar zen.

b) Silaba bat gailentzeko erabiltzen den parametroa *indarra* da espektrogrameen azterketek erakusten dutenez. Hain zuzen, lan honegaz aurkeztuten ditudan 2.2.0.0. eta 2.2.0.1. espektrogrametan, goiko kurba indarrezkoa da eta bistan dago *a* bokalak —ostaabe berbakoa— inguruko bokalekaz gonparatuz, indartsuagoa dela, dagokion kurba-zatia altuago doalako. Egia da Ondarruko berba honetan kontrakzio bat jazoten dela, euskal ebakeran hain sarritan gertatzen denez. Baina kontrakzio honek, hain zuzen ere, silaba horren azentua indarrezkoa izan behar dela frogatzen du, Mitxelena-k aspalditik eta hizkuntza-historiaren arauera erakutsi zuenez (13). Doinuaz, geroago arduratuko naiz. Eta iraupenari dagokionez, fonemen azterketak argitzen duena ohartzen da: iraupena ez da ezaugarri pertinentea, beste ezaugarriek, automatikoki, ekarritako bat baino (14). Jakina, Paul Garde-k dioenez (15), belarrira parametro guztiak “en vrac” etortzen zaizkigu eta, ez da erraz jakiten, makinarik gabe, zein den parametrorik nagusia.

(11) K. ROTAETXE: Op. cit. in (3): 58-59-61-69-153-154.

(12) Eskaini didan laguntzagatik, eskerrak eman behar dizkiot Hizkuntzalaritza Orokorreko Sailean lankidea eta adiskidea dudana Maitena Etxebarria Irakasleari.

(13) L. MICHELENA: “A propos de l’accent basque”, in *BSLP*, 53 (1957-58): 204-223.

(14) Honetaz, cf. adibidez: KARMELE ROTAETXE: “Interpretación silábica en la lengua vasca”, in *Estudios ofrecidos a Emilio Alarcos Llorach*, V. Univ. de Oviedo, 1980. Lan horretan, *la* (tza)/*laa* (tza) oposizioa aztertu nuen eta bigarren *laa* zatiak silaba bi dutela agertzen da, espektrograma batzuri esker; ez dago bokal luzerik ez eta geminadarik.

(15) P. GARDE: Op. cit. in (10): 52.

d) ri erantzuteko —hau da, azentuaren markoari buruzko itaunari— jarritu diodan taktikaz hitz bi esan behar aurretik. Ohitura denez, interesatzen den hitza kontesto foniko berezi batean sartu behar da, balio metalinguistikoa emateko asmoz eta entonazioaren efekturik at lagateko; horretarako tokirik onena erdikoa da eta Ondarruko inkestetarako erabili dudan kontestoa: /Ostabe...diñot/ izan da. Hori dela eta, interesatzen den berba mugatuta geratzen da, baina entonazio gabeturik. Pentsa daiteke baina, mugatzailea, aktualizatzailea edo artikulua, hau da —a, enklitikoa delako, berez, azentugabeturik dela, enklitiko guztiak bezala. Espektrogramen azterketek erakusten dute *hitz-oinaren*, edo *basearen*, silaba bat gailtzen dela eta gailentze hau indarrak ekarritakoa dela, lehen esan denez: ikus daiteke 2.2.0.0. espektroko /andri/-ren silabak (16).

Bidenabar, eta honetan datza nire iker-lanaren alderik jakingarriena, honetaz ohartu naiz: *singularrean*, artikulua kokatzen den silaba altua da; silaba horren frekuentziaren *armonikoak* gorantz doaz, nahiz eta indarra handitu barik. Horrek esan gura du, silaba horretan, *azentu-oihartzuna* dugula eta oihartzun hori *doinuak* ekarritakoa dela (ikus. 2.2.0.0. espektrograman /andri/ taldeko soinuaren armoniko-joerak, batez ere /i/tik-/o/ra pasatzean).

Silaba bi baino gehiago dituzten unitateetan, *azentua duen silabatik eskumaldera doinua mantegitzen da silaba guztietan*. Horregatik entzuten dugu /adiskide/ edo /lengusina/ edo /batasuna/ edo /aurrerakada/ eta ez dugu inoiz ere entzuten /adiskide/ ez eta /adiskide/ ez eta /adiskidé/, gazlererazko azentuagaz. Baina, arrazoi berberetatik —doinua mantengintzen ez dutelako— euskera (edo, behinik behin, bizkaiera) entzuteaz ohiturik ez dutenengandik entzuten da sarritan /Euskadiko Ezkerra/ edo /Hérrí Batasúna/ eta mila eta mila antzeko adibideak. Eta euskal berbak erdarazko esaldi batean sartzen direnean, erdal azentuari jarraitzen diote: “Trabaja en Euskaldúna” edo “tiene el título de Euskaltzáindi” edo “voy a Donóstia”.

Ohar honek esangura du azentu-oihartzuna zabaltzen dela *sapalda* batean (“plateau accentuel” deritzana, eta frantses esakera hau ingelesez ere gordetzen da), azentudun silabatik eskumara azentu-markoa agortu arte. Azalpen honen bidez, hobeto ulertzen da -eta justifika daitezkeretatik hain sarritan aipatu den euskal azentua doinuzkoa den eta zergatik S. Altube-k, adibidez, esan zuen:

(16) Gaitza da erabakitzea ea *r* bibranteak “esbaribatiko” bat sortzen duen —hori adierazteko *i* (?) txikerra jarri dut-ala *i* bokalak lotzaiki bat sortzen duen *o* bokaleraino. Dena dena, *dri* silaba da indartsuena espektro honetan, hau da, bigarrena hemen ere, orain baino lehenago aurkeztu ditudan espektrogrametan legez.

“la palabra vasca es impulsivamente isotónica, o sea que todas las sílabas se pronuncian con igual fuerza impulsiva” (17).

edo

“(…) la definición del acento euskérico; en este idioma, el tono de las palabras aisladas normalmente pronunciadas es de una uniformidad casi absoluta” (18).


Gauzak horrela izanez gero, indar-azentua duen silabak eta doinua mantegitzen duten hurrengo silabek (hau da, lehenaren eskuman daude-nak) ematen diote entzuleari —denen artean— *azentu-itxuraketa*. Hori dela eta, azentu-markoari dagokionez, parametrorik handiena doinua dugu. Ohar daiteke, hain zuzen ere, doinuari esker lortzen den azentu-oihartzuna sapalda (“plateau”) bat legez errealizatzen delarik, unitate batetik bestera zabal daitekeela, azentudun hitz-talde bat emateko, hau da, azentu-markoa gauzatzeko. Hau gertatzen da izena eta izen-lagun atributuaren artean, adibidez. Hurrengo sintagmak /ume ona/ edo /etxe ederra/ etenik gabe entzuten dira eta *mé* edo /txé/ silabetik aurrera doinua geratzen da /uméóná/ eta /etxédérrá/ emateko. Azentu-marko hau ederto ikus daiteke 2.2.0.0. espektrograman: doinuari esker, /andriona/ unitate bakar bat izango balitz legez agertzen zaigu; aurretik eta atzetik mugatuta, hemen dugu azentua markoa. Baina, bestalde, /ostabe/ unitateak bere markoa du eten baten bidez amaitzen delarik.

Nahiz eta inguruko hizkuntzetan azentu-oihartzun fenomeno hau ez jazo, errusieran jazo ei da eta japonieran, adibidez, antzeko gauza dugu kontrako sapalda bat izanez, hau da, eskumatik ezkerreerantz. Baina, eta guretzat harritzekoa ez da, japonierari buruz ere —euskarari buruz legez— askotan esan da azenturik ez zeukala (19).

(17) ALTUBETÁF Seber: *Observaciones al tratado de Morfología Vasca de D. Resurrección M. de Azkue*, Euskera-tik atera izan zuena, Bermeo, 1934.

(18) —: Op. cit. in (7): 21 orr.

(19) E. POLIVANOV: “La perception des sons d’une langue étrangère”, in TCLP, 4: 79-98 orr. Iker-lan horretan, argi ta garbi egileak dio: “La conviction régnait chez les savants russes qu’en japonais il n’y avait pas d’accent du tout”. 87 orr. Bestalde, cf. nire hipotesia hobeto ulertzeko N.S. TRUBETZKOY-ek dioena *Mie*-ko (Nagasaki-n) japonierari buruz: “La mise en relief accentuelle peut embrasser toute une suite de prosodèmes, de sorte que cette série de prosodèmes, peut éventuellement former un mot tout entier”, in *Grundzuge der Phonologie*, J. Cantineau-k *Principes de Phonologie*, itzulpenetik, Paris, 1967:218.



Azaldutako fenomenua —*oihartzuna*— ditudan datuekin ez da *pluralean jazoten*. Hau da, pluralizatzailerak -g, forma baten egituraren sartuta gero, jesartzen den silabaren armonikoak *beherantz doaz* (ikus. 2.2.0.1. espektroko /*andrak/* eta /*onak/* berbetan azpimarratutako silabak). Azentuari dagokionez, pluraleko morfema honek oso ondorio berezi eta garrantzitsu bat duela esan daiteke, hemengo euskalkietan, behintzat. Enklitiko delako azentu gabeko izanik, bereizitasun bi ditu: alde batetik, ez du azentu-oihartzunik hartzen eta, beste alde batetik, Ondarroan, behinik behin, hitzaren azentua, bera, atzeratu egiten du, aurreko silabara bialduduz. Horrela, 2.2.0.1. espektroan, armonikoei dagokienez, /*andragonagdi/* talde honetan, /*an/* silabatik aurrera armonikoak beherantz doaz; eta, indar-kurbari dagokionez, hartzen badugu, orain, /*andrag/* unitatea lehenengo silaba bigarrena baino indartsuagoa dela agertzen da.

Hortaz, pentsatu behar da azentu-itxuraketa morfologiagaz lotuta dagoela gure hizkuntzan eta azentu-markoa finkatzeko morfema bakoitzaren efektua kontutan eduki beharko genukeela. Arrazoia hau da: base edo hitz-oin bati lotzen zaizkion morfemak (hizkuntza eransle baten aurrean gaude) atzizkiak direlarik, bakoitzaren efektuak alda dezake hitzaldearen muga eta azentu-itxuraketa. Nahiko aspaldidanik aurkeztu nuen morfemen banaketan —azentuari begiraturaz— izen forma batean sartzen direnek ez dute efektu berdinik (20). “Grosso modo” baina, efekturik handiena eta pertinateena pluralegilearena da.

Hitz batez, hona nire ondorioak:

– Unitate azentugarria silaba da.

– Euskal azentua indarrezkoa da, baina.


– Azentu-oihartzun bat ageri da, doinuaren bitartez, azentudun silabatik eskumara, eta oihartzun hau sapolda batean (“plateau”) zabaltzen da, singularreko formetan.

– Pluraletan, bereizi behar dira lehen-denborazko kasuen formak eta beste guztiak, morfologiari dagokionez eta, jakina, azentu-itxuraketari dagokionez. Leku-denborazko formen itxuraketaz ez naiz hemen arituko (21). Beste pluraleko formen egitura, jakina denez, honela da: Hitz-oina (edo Basea) -a -g-funtzio marka, -g- konpontzaile hau pluralegilea izanik. Deskripzioak erakusten du pluralegile honen silabak (ezin naiz hemen sartu morfonologiaren zehazketan) ez duela oihartzunik hartzen eta bere esku-man dauden silabek ere ez.

(20) K. ROTAETXE op. cit. in (3), 4 Kap.: *Sistema acentual en formas ligadas nominales*. 4.1 Kap.: *Clasificación acentual de los morfemas* eta honi buruz datozen *observaciones*.

(21) Aldeak ikusteko, cf. op. cit. in (3), 3.10 kap. morfologiarako eta 4 kap. morfemen banaketarako.

TYPE B/65 SONAGRAM © KAY ELEMETRICS CO. PINE BROOK, N. J.



— Bisilabadun hitzetan, -g-ren efektu atonizatzaileak hitzaren azentua atzera bidal dezake: /andri/ hitzak bigarren silaban azentua dakar, baina /andrak/ lehenengoan.

— Euskaran, azentu-markoa hitz-taldea izan daiteke beti. Hiztegiko unitate ezberdinek talde bat eratzeke gramatikari edo/eta pragmatikari dagokien zenbait baldintza bete behar dute: adibidez sintagma bat eratzea (*andriona*). Bestalde eta esan denez, markoak azentudun silaba (*gailentzea*) besarkatzen du eta bere barruan mantentzen den soinu-parametroa doinua izanez, doinua dugu markoaren lokarria. Horregatik entzuten diren hitz-taldean erritmo-taldeekin lotuta daude, zalantza barik.

— Pluraleko formetan singularrekoetan baino *eten* gehiago ager daitezke pluralegilearen efektuagatik.

— Azkenez eta goiko e) itaunari zera esan behar da: azentu-itxuraketa aldean utzita, hiztegi baseak badauka azentua eta ditudan datuen arauera, hitzik gehienetan bigarren silaban —ezkerretik kontaktuta— jausten da, nahiz eta hitz batzuetan lehenbiziko silaban egon. Aztertu dudana euskarra, azentuaren kokaguneak bereiz dezake zenbait oposizio: /báso/basó/; /txistu/txistú/; /hónek/honék/; ... (22).

1.2.1. *Euskal azentu motak*

Oraintsu azaldutako azentua ez da bakarra gure hizkuntzan. Behin baino sarriago aipatua izan denez (23), lau azentu mota bereiz daitezke euskaran. Batzuren ustez, egoera honek aukera bat eskatzen du azentu bakar bat irakaskuntzan eta mass-medietan eredutzak eskaintzeko, euskarra bariatateen arteko aukera bakarra egin zen bezalaxe. Nire ustez, baina, badago zer edo zer uniformitate hori baino garrantzitsuagoa dena: irakasle bakoitzak ezagutu beharko luke bere azentua zelan gauzatzen den errealizazio hau bere ikasleei irakasteko gauza izateko. Argi dago, baina, horrelako prestakuntza ez dela gaur egun ematen ez Eskoletan ez eta Fakultateetan. Gauzak honela izanez gero eta moten arteko aukera egitekotan, azaldu dudana motaren alde nago, arrazoi bigatik: a) soziolin-

(22) — op. cit. in (3): 161-162.

(23) L. MICHELENA: "A Note on Old Labourdin Accentuation", in ASJU, 6: 110-120, 1972.

N. HOLMER: *El idioma vasco hablado*, San Sebastián, 1964.

W. JACOBSEN: "Nominative-Ergative Syncretism in Basque", in ASJU, 6: 67-109, 1972.

guistikari dagokiona: azentu mota hau Mendebaldekoa da eta bere eske-mari begiratzeko badiogu (eta ez ebakera indibidual bati), hau da, Fonetika hutsetik Fonologiara igarotzen garenean *pertinentea* zer den topatzeko, orduan eskema hau hiztunik gehienok duguna da; b) hizkuntz barruko arrazoiak: azentu mota honen ezaugarriok euskal azentuaren bereizitasuna azaltzen dute. Alde batetik, indar azentua delako, historian zehar jazo diren kontrakzioak eta gaur egun oraindino gertatzen direnak (ikus. espektroetan, *ostabe* berba, “ostera bere” adierazteko) aditu ahal ditugu; bestalde, doinu oihartzunak dituen ondorioek erakusten digute zergaitik hain sarritan (24) aipatua izan den doinuaren garrantzia gure hizkuntzan. Gainera, doinu oihartzun hau ez da jazoten inguruko hizkuntzetan eta euskarak berezkoa duela pentsatu behar da.

1.3. Grafiari eramateko proposamena

Goian esan denez, nire *Estudio estructural del euskara de Ondárroa* liburuan azentuari buruzko euskal morfemek dituzten propietateak azaldu nituen. Arazo horretaz, zehatz eta mehatz hor aritu nintzen eta, ez dut hemen astirik azalpen luze horiek errepikatzeko, kritikarik izaten ez den bitartean, behinik behin. Zelan edo holan, baina, proposatuko dudan notazioa ulertzeko beharrezkoak dira.

Bestalde eta jakina denez, azentua notatzeko, diakritiko batzuk erabiltzen dira, benetako azentuaren gorabeherak erreflejatzeke gauza ez direla izaten jakin arren.

Gure kasuan, diakritikoen bidez erabilkeran jazoten diren azentu-itxuraketa motak (singularreko eta mugagabeko sekuentziak vs. pluralekoak edo leku-denborazko singularren sekuentzien itxuraketak etab. (25) bereizi beharko ditugu. Hitz batez esateko, hau da diakritikoez erakutsi behar dutena: itxuraketa mota biren arteko aldea; jakina denez, sekuentzia batzuetan doinu oihartzuna geratzen da eta beste batzuetan, ez. Diferentzia hau jasoteko, diakritiko tipo bi erabiliko dira. Gainera, jakin badakigu barbarik gehienetan azentua bigarren silaban jausten dela, baina beste batzuetan, lehenean, eta alde hau ere agertu behar da. *Estudio estructural del euskara de Ondárroa* delakoan proposatu nuen notazioak

(24) Ez bakarrik AZKUEK eta ALTUBEK, lehen esan denez, ikus. baita ere: J. BASTETRETXEA “Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica” (I), in *Fontes Linguae Vasconum*, 18: 353-393, eta (II) in *id. id.*, 21: 289-338, 1974 eta 1975.

(25) K. ROTAETXE op. cit. in (3): 555-563.

ekonomia-erizpideak bilatzen zituen batez ere, diakritiko bakar bat eskainiz: diakritikoa, hain zuzen, azentu-eza adierazteko.

Nire oraingo ikuspunduz, diakritiko bi erabili beharko lirateke: azentu-eza adierazteko eta azentua adierazteko. Diakritiko hauek erabiltzeko arauak hauek dira:

A.1: 'ikurra azentudun silaban ipini behar da. Izan daiteke lehena edo bigarrena (báso/basó; txistu/txistú, etab...).

A.2: maileguzko hitzak aldean utzita, diakritikoa duen silabatik aurrea doinua mantengitu behar da, ahozkatzean, hitza edo hitz-taldea amaitu arte: adib. *gizónari* forma honetan doinu sapolda ("plateau") sortzen da azentutik aurrera; gauza berbera esan gura dugu *gizónek* mugagabeko ergatiboan, edo *gizónak* singularreko ergatiboan edo *gizónágitik* (azken honen pluralaz, geroago arduratuko naiz), idazten ditugunean.

A.3: maileguzko berbek aparteko tratamendua merezi dute. Dirudienez, hauek oihartzunik ez dute edukitzen: adibidez, /ze báso/ formak eta ergatibo singularreko /básoak/ formak edo hitz honen beste formek gaztelerazko azentua dute.

A.4: 'diakritikoa agertzen den silabak ez du azenturik ez eta oihartzunik, ez silabak berak, ez eta bere eskuman dauden beste guztiek, berba amaitu arte. Ad.: *gizónèi* edo *lagúnèkin* forma idatzita hauek ahozkatu behar dira azentu-oihartzun barik *nei* silaban, lehen kasuan, eta *né* silabatik aurrera (hau kontatuta), bigarren kasuan.

A.4.1: salbuespen bat egin behar da hemen. Dirudienez, *-gátik* morfema kontuan, bigarren azentu bat ("acento secundario") edo ohartzen da. Paradigma honen azentua aztertu nuenean (26) diakritikoa erabili nuen honetarako. Adibidez, *gixónakâitik* idatzitako forma honetan, diakritikoak zera adierazten zuen: aurreko silaba (*na*) azentu barikoa izan arren *kâi* silaban eta honen hurrengoan (*tik*) doinua ez zela behean geratzen, beste pluraleko formetan jazoten denez (ikus. goiko *lagúnèkin*). Baina, diakritikoa erabiltzeko beharra eztabaidagarria da, ekonomiaren aldetik. Azken baten, *lagúnakátik* edo *lagúnengátik* idaztean ere ez dago akats handirik pertinetza den gailentzea gordetzen den neurrian. Notazio hau gordezketan, irakurtzeko arau batek zera esan beharko luke: unitate berberren diakritiko berdin bat silaba bitan agertzen denean, erdiko silabak ez du doinua mantentzen.

(26) — op. cit. in (3): 3.09 kap.: 498-509.

2. ENTONAZIOA

2.1. Entonazioa Hizkuntzalaritza Orokorrean

Entonazioaren funtzioa ez da azentuarena. Entonazioak ez du kontrastetik bilatzen hitz batean, ez eta hitz-talde batean. Entonazioaren bidez —eta hau hizkuntza guztietan— esaldi motak bereiztuten ditugu. “Esaldi” hitza eta ez “perpauza” erabiltzeko badago arrazoirik. Azken hau gramatika-nozioa dugu eta lehena, ordea, pragmatikari dagokio eta hemen interesatzen zaiguna da. Pragako hizluntzalariek aspaldidanik erakutsi zuten, esaldi batean zati bi bereizten dira: tema/rema edo mintzagaia/galdegai. Bestalde, “esaldi/perpauza” oposizioari dagokionez, beste hizkuntza batzuetan “*énoncé/phrased*” edo “*utterance/phrased*” etab., gauzatzen da.

Ez da esan beharrik hizkuntza guztietako hiztunok zenbait bide dugula benetako zalantza (ala sasi-zalantza) batean garelako adierazteko, “deklarazio” bat (baiezkoa edo ezezkoa) egiten ari garelako adierazteko edo agindu bat ematen ari garelako komunikatzeko. Baina ditugun hiru esaldimota hauek hitzek soilik ez dituzte bereizten. Ahozko hizkuntzan, hitzek eta hitzordenak egiten ez dutena entonazioak, hain zuzen, egiten du. Adibide batez baliatuko naiz: Frantsesezko honelako hitzen katea bat/*qui vois-tu Marie/* eta, bada ez bada ere, aurreratu gura dut /*qui tu vois Marie/* ordenagaz gauza berbera izango litzatekeela, hiru esaldi izan daitezke:

- 1) /*Qui vois-tu, Marie?/*
- 2) /*Qui vois-tu? Marie?/*
- 3) /*Qui vois-tu? Marie./*

eta Ingelesezkoari bardin gertatzen zaio:

/what do you say Mary/

- 1') /What do you say, Mary?/
- 2') /What do you say? Mary?/
- 3') What do you say? Mary./

edo Gaztelerazkoari:

/qué dices Mary/

- 1'') /Qué dices, Mary?/
- 2'') /Qué dices? Mary?/
- 3'') /Qué dices? Mary./

eta baita ere Euskarazkoari:

/zer esan duzu Miren/

1^o) /Zer esan duzu, Miren?/

2^o) /Zer esan duzu? Miren?/

3^o) /Zer esan duzu? Miren./

Kasu guztietan, honako honetaz ohar gaitzke: esaldi mota bakoitzari dagokion entonazioa jartzen ez dugun bitartean, *ez dago mezurik*. Beste zer edo zer erakusten digute goiko adibideok: mezu desberdinak adierazteko, *esaldiaren zati baten doinua* aldatu behar da.

Hizkuntzalaritza Orokorrean doinu aldaketa horretaz eztabaidatu egin da. Hizkuntzalari batzuren eritziz, entonazioaren aldaketak “continuum” batean jazoten dira eta, beraz, ez dira fonologikoak. Beste batzuk, ordea, esaldiaren zati baten aldaketak “diskretoak” direla uste dugu eta, ikus-pundu honetatik, entonazioa fonologiari dagokio, nahiz eta hiztunen artean errealizazio bat baino gehiago agiri: funtsez, baina, hizkuntza baten barruan guztiok eskema bardin batzuk gordetzen ditugu. Askotan, gainera, eta problemari oso “grosso modo” begiraturaz, eskema minimo batzuk hizkuntza desberdinetan aurkitzen dira. Aipatutako adibideei buruzko kurbak, gutxi gorabehera, honela izango lirатеke (27):

1. Lau hizkuntzetan: zati bi ditugu; lehena goitik behera doala eta eten ahul bat izanez gero, bigarrena gorantzeko joera duelarik, sostengitzen da.

2. Lau hizkuntzetan: lehen zatia goitik behera joan eta gero, eten handiago bat dugu eta bigarren zatia behetik zeharo gora doalarik (ingelesez erditik gora).

3. Lau hizkuntzetan: lehen zatia goitik behera; gero eten handi bat (onartu behar da hiztun bik hartzten dutela hitza, hemen) eta bigarren zatia goitik behera zalantza barik.

Ohar interesgarri batzuk atara daitezke hemendik:

a) Entonazioaren markoa ez da azentuarena. Entonazioak esaldia du markoa.

b) Erabiltzen den parametroa doinua da beti.

(27) Kurbak orain baino lehanago aurkeztu ditut, ikus. op. cit. in (3): 170-206 eta in (11).

d) Esaldiaren barruan entonazio-talde batzuk sortzen dira, askotan joera oposatua dutelarik; hau da, esaterako, “deklaratibo” esaldiaren kasua, temari eta remari dagozkien kurbak (entonemak) kontsideratzen direnean, batez ere.

2.2. Euskal Entonazioa

Azterketan aurkitu ditudan kurbak beste hizkuntzetarako aurkezten direnakaz gonparatuta, ez da alde handirik ikusten. Funtsezko eskemak, gutxi gora behera, geratzen dira, hizkuntzaz hizkuntza, deklarazio bat egiteko, itaun bat egiteko edo agindu bat emateko. Dena dela, ohar bat egin behar da euskararen entonazioari buruz: Ondarroan hartu nituen datuetan, galdegaia eta aditzaren artean *etenik ez dago inoiz*, unitate biok talde erritmiko bat egiten baitute; horregatik, pragmatikaren aldetik, unitate bakar bat bezala funtzionatzen dute. Adibidez, Ondarroako esaldi honetan /sapatun beran aitzaz zinea du/, hau da “larunbatean bere aitagaz zinera doa” eten bat ohartzen da /sapatun/ eta /beranaitaz/ taldeen artean, txikiagoa ala handiagoa izan daitekeena, erritomoari begiraturaz. Eta /beranaitaz/ eta /zineadu/ taldeen arteko etena derrigorrezkoa da, esaldiaren zati nagusi bi bereiztuteko. Baina /zineadu/ talde bat delako, /zinea/ eta /du/-ren artean ezin da etenik sartu. Gauza bera ohar daiteke /Juan Etxebarria Ondarrun bizi re/ esaldia entzuten denean: etenik bakarra /Juan Etxebarria/ esanda gero dator, besterik izan gabe. Ez da harritzekoa: entonazioaren zatiak —eta hauek ekartzen dituzten etenak— hiztunak komunikatzen duenagaz lotuta doaz eta, alde horretatik, galdegaia —tematik at delarik— rema eratu behar du.


Ondoko espektrograman (ikus. 2.7.0.) /arratoi orda/, *hor* eta *da* unitateen artean ez dago etenik. Gauza bera dugu 2.2.0.0. espektroan: entonazioaren bigarren zatia /onada/ dugu etenik gabe; arrazoi horregatik 2.2.0.1. espektroan /onagdis/ irakurtzen da, eten barik.

Badirudi ere entonazioaren gorabeherak ez direla, gure hizkuntzan, oso markaturik. Interesatzen dena, halere, aldaketak eta etenak dira. Ez dut hemen kurba-motarik aurkeztuko, orain baino lehenago egin nituenak mantengitzen ditudalako. Kurba joeraz soilik arduratuko naiz:

a) *Esaldi asertiboa*

Kurbak zati bi ditu: lehena gorantz doana (tema) eta bigarrena (rema) beherantz oso doinu graberik hartu barik:

/gaur goizean ≠ ≠ eresketa egin dut/ esaldia horrela ebakitzen da. Eta galdegaia /gaur goizean/ izango balitz, ebaketa honela izango litzateke:



/erosketa ≠ ≠ gaur goizean egin dut/

Kasu biotan, lehen zatia gorantz doa eta bigarrena beherantz, etena (≠ ≠) izan eta gero.

Eta, honelako zati batzuren barruan, zenbait hedatze sar daitezke: izen-sintagmari dagokionez, esaterako, erlatiboa hedatzea dugu. Orduan, eta printzipioz, erlatiboa eta dagokion sintagmaren artean ez dago etenik. Hau erlatibo determinatiboetan argi ta garbi entzun daiteke. Baina, erlatibo apositiboa denean -eta honelako erlatiboak ere euskarari baditugu- eten txiki bat egin ahal da. Abididez, eta ≠ ≠ eten nagusia eta ≠ eten txikiago bat adieraziz, honelako etenak (eta melodiaren aldaketak) ditugu:

/erosi doten orixu ≠ ≠ txarra da/, /erosidotenorixu/ talde bat izanik, edo

/dendanerosidotenorixu ≠ ≠ txarra da/, lehen taldea /dendanerosidotenorixu/, izanik. Baina:

/orko orixu ≠ neuk erosi dotena ≠ ≠ txarra da/, /neukerosidotena/ erlatibo apositiboa izanez.

Enumerazioetan, zera ohartzen da: sintagma bakoitzaren artean etenak izaten dira, lehen sintagma duen melodia bera errepikatuz, eta, esaldi asertibo guztietan legez, etenik handienak zati bi ematen dizkigu. Esan gabe doa, teman sartzen diren sintagma guztiak gorantz doazela (“anticadencia”, Navarro Tomas-en hitzez baliatuz) eta reman sartzen direnak beherantz, lehen esan dugunez. Hona hemen Ondarroako esaldi honetan jazoten diren eten txikiak eta eten nagusia:

/ogixe ≠ esni ≠ azukri ≠ taorixu ≠ ≠ danakaroture/

Euskara batuan antzeko esaldi honek eskema berberari jarraituko lioke:

/ogia ≠ ardoa ≠ eta okela ≠ ≠ denagustatzenzait/

b) *Itaunak*

b.1. *Zuzenak* izaten direnean, kurba behetik gora doa eta esaldia oso luzea izaten ez denean ez da etenik entzuten. Garrantzitsuena dena kurbaren joera da:

/kaferikartukoduzu/

Bestalde, lehenbiziko silabaren eta azkenaren arteko doinuaren alde handiagoa edo txikiagoa izan daiteke: hemen “continuum” baten aurrean gaude eta hitzunaren expresibitateak zerikusi handia du alde horren neurrian. Baina hitzun guztiok gorde behar duguna kurbaren joera da.

b.2. *Galderazko morfema bategaz* hasten diren esaldiak, beste hizkuntza askotan bezala, doinuaren gailurra morfema horretan egoten da. Euskaraz, nire ustez, kurba geroago beherantz doa baina azkenengo zatia ez doa oso behera. Alde horretatik, euskara gaztelerari baino frantsesari gehiago hurbiltzen zaio.

b.3. *Zehar itauna:*

Nahiz Ondarroako:

/preuntateoste ≠ ≠ zeindenJon/ esaldian nahiz /itaundu didate ≠ nor den Jon/ beste honetan eskema bera ikus daiteke. Zati bi ditugu: lehena goitik behera, etena eta gero bigarren zatia behetik gora doana, baina galdera zuzenean baino beherago gelditzen da.

b.4. Askotan, galdera zuzeneko egitura duten esaldi batzuetan itauna bera berba bati (eta ez aditzari) dagokio. Adibidez, 2.8.3. espektroaren azterketan, hau nabaritzen da: /xuan/ berba ahozkatu ta gero, eten luze bat dugu, tematik rema isolatzeko. Rema hau eten horren ondoren dator eta, itauna delako, armoniko guztiak gorantz doazela bistan dago. Baina joera hau batez ere /arin/-eko /a/ silaban nabaritzen da; eta egia esateko, itauna da ea Juan “arin” datorren ala ez, /Juan arin dator?/ esaldi horretan.

d. Azkenez, esklamaziokoek eta agintzeko esaldiek goitik beherako kurbak edukitzen dituzte:

/Etorri hona/ eten barik ahozkatzen da eta aipatutako kurbaren joerari jarraituz. Gauza bera Ondarroako honetan:

/zelakotxikixe/

Berriro esaldi mota hauetan lehen aipatu duguna jazoten da. Mintzagaia edo tema izatekotan, hau ahozkatuta gero eten luze bat dugu galdegai taldea (edo rema) ahozkatu baino lehenago. Hau ikusten da 2.9. espektroan: /Juan ≠ ≠ etorriarin/. Rema honetan, ez dago hitz bakar bat, bi baino. Baina entonaziorako, /etorriarin/ entonema bakar bat da eta, jakina, ezin pentsatu etenik jazoten denik.

3. AZENTUAREN ETA ENTONAZIOAREN ARTEKO HARTUEMONAK

3.1. Fenomenu biak nahastuteko arrazoiak

Ikusi ditugun fenomenu biak nahastuteko arrazoirik handiena hone-tan datza: batak eta besteak doinua erabiltzen dute gure hizkuntzan. Gainera, azentu oihartzunak sortzen dituen *erritmo taldeak* esaldiaren barruan mantengitzen dira. Egia esateko, hizkuntza gehienetan hitzaren azentua aldatzen da esaldi baten barruan sartuta gero, A. Belić esan zuenez aspaldidanik:


“Il n’y a aucun système accentologique de mots isolés qui ne change un peu de nature dans la phrase, étant donné que dans la phrase les accents de mots doivent s’adapter à l’accent phraséologique. Mais cela ne signifie pas qu’ils changent fondamentalement” (28).

Zalantza barik, azentua gauzatzeko doinua erabiltzen duten hizkuntzetan (euskaran legez) sortzen den “adaptazio hori” (Belić-en hitzez baliatuz) edo “moldaketa” hori erraztuten da. Gainera, ez da ahaztu behar euskara hizkuntza eranslea dela eta gure “hitzak” (zer edo zer deitzeko) benetako sintagmak direla.

3.2. Bereiztuteko beharrak

Baina, halan eta guztiz ere, fenomenu biak behar den moduz ulertzeko bereizi behar ditugu. Gainera, nahastuteko arrazoiak esaldi aserti-boetan, batez ere, jazoten dira. Agintzeko esaldietan, adibidez, fenomenu bien arteko aldeak argiago ikusten dira. Aipatua izan den azkenengo espektroan (ikus 2.9. esp.) zera ikus daiteke: mintzagaia (edo tema) den berbaren /Juan/ eta galdegaia (edo rema) den taldearen /etorriarin/ artean eten handi bat dugu eta eten hau entonazioari, bakarrik, zor diogu. Bestalde, /etorri/ hitz horretan azentudun silaba /to/ da, duda barik, eta esaldian sartua egon arren, silaba horrek bere indarra gordezten du, espektroaren goiko kurbak erakusten duenez. Baina, jakina, doinua entonazioari moldatu behar zaio eta, ikusten denez, doinu oihartzunaren armonikoak beherantz doaz informazio mota bi adierazteko: a) hiztunak zer edo zer agindu duela eta, ondorioz, entzuleak agintekera dagoela mezuan aditu behar du; b) hiztunak mezuaren amaiera ematen diola.

(28) A. BELIĆ: “Accent de mot-Accent de phrase”, in TCLP, 4 (1931): 183-187.



TYPE B/85 SONAGRAM • KAY ELECTRONICS CO. PINE BROOK, N. J.



Y s a n e f o r u a n l e

Hain zuzen ere, hizkuntza erabiltzen dugu gizon emakumeok gizar-tean elkarrekin komunikatzeko. Eta komunikazioaren unitateak esaldiak dira; hiztunok hauek moldatzen dizkiogu errealitateari edo adierazi gura dugunari, erritmo eta melodiaren bidez. Moldaketa hau ondo egiteko, *komunikazio gaitasuna* (eta ez gramatika gaitasuna) beharrezkoa da: *NORK? NORI? ZERTAZ? NON? eta NOIZ?* itaunei dagozkien erantzun zuzenak emateko., Entonazioak Pragmatikari jarraitzen dio. Ikusi dugun azentua (ez naiz ari izan azentu expresiboz), ordea, baldintza hauetatik at azter daiteke eta aztertu behar da.

Dena dela, fenomeno bi hauek ahozko hizkuntzari dagozkio, esan denez. Eta euskararen ezaguera, hizkuntza bizi baten ezaguera den neurrian, erdi ezaguera izango da azentuari eta entonazioari buruzko arau praktiko batzuk ematen ez diren bitartean. Horregatik eta amaitzeko, eskertu gura diot Euskaltzaindiari II. Jardunaldi hauek antolatzeagatik.